

**Ipar Irlanda**

Bake prozesuaren
egunerokoa
Derryn

Txaro Idiakez

telebistarako
itzultzailea
«Ez dago
gazteentzako
emankizunik
euskaraz eta
erdarara
pasatzen dira»

**Jose Ramon
Beloki**

EAJ
«Nik eginahalak
egin nituen
Bilduri ez uzteko
Gipuzkoako
Diputazioa»

Manel

Pop-rock katalan
arrakastatsua
Euskal Herrira
dator

IÑIGO IRUIN
abokatua

«Garbi dago aparatu polizialek
gustukoa ez dutena trabatzeko
mugimenduak egingo dituztela»



ARGIAk ekimen berri bat abian jarriko du:

argia emanaldiak

www.dokumentalak.com

Taberna, gaztetxe, kultur etxe, euskaltegi... ezberdinetan hilero dokumental bat proiektatuko da.

Helburua: Kalitatezko ikus-entzunezkoak zabaltzea eta euskarazko ekimenen inguruko bilguneak bultzatzea

Proiektu irekia da. Zure herrian ekimen hau antolatu nahi baduzu gurekin harremanetan jar zaitez:

☎ 943 37 15 45

sustapena@argia.com

SANTI BROUARD



Duintasuna omen

Santi Brouard, Bilboko bere pediatria kontsultan, GALEk tiroz hil zueneko XXV. urteurrenean egindako dokumentala.

SARRERA
doan

Azaroak 8

**Bilboko
Kafe Antzokian**

19:00

Antolatzailea:
Zenbat Gara

Azaroak 15

**Urretxu-Zumarragako
GazteleKUan**

22:00

Antolatzailea:
KKinzonea

Azaroak 17

**Hernaniko
Zumitza Tabernan**

19:00

Antolatzailea:
Zumitza Taberna

Azaroak 18

**Zornotzako
Barnetegian**

13:00

Antolatzailea:
Aurten Bai Fundazioa

Azaroak 24

**Lasarteko Jalgi
Kafe Antzokian**

21:00

Antolatzailea:
Ttakun Kultur Elkartea

✳ Bertaratuentzat eskaintza bereziak ARGIAren eskutik

Emanaldi berezia Arrasaten



Eriz Zapirainen "Salda Badago" dokumental ikusgarria eskainiko da. 80. hamarkadan Euskal Herriko musikagintzan sortutako punk eta rock mugimenduaren iragana eta geroa.

Azaroak 30

**Arrasateko
kulturAten**

20:00

Antolatzailea:
AED

Gonbidatu bereziak

- Iker Barandiaran
MUSIKA KAZETARIA
- Txerra Bolinaga
RiPeko KIDEA



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko azaroaren 13a, 2.298. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Juan Mari Arzak:** «Nitaz ari direnean beste batez ari direla iruditzen zait». SUSTRAI COLINA / 4

Astekoa gaia

- **Derry.** Bakerako bidean oztopoak gainditzen. ANDER LEON / 5

Pertsonaia

- **Iñigo Iruin:** «Erabaki politikoari soinekoa egiten dion jostuna da jurista». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- Dispersioaren hamaika aurpegi. JOSU TRUEBA LEIVA / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Miseria bilatzaileak. BEÑAT SARASOLA / 20
- Luma eta lubakia. IXABEL ETXEBERRIA / 21
- **Hiruko txikian** Borroka. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- Kontraesanak eta kontraesanak. IMANOL ALVAREZ / 22
- **Txandan** Amnistia? JOSU AMEZAGA / 22
- **Zirtak** Bakearen soinu banda. ANGEL ERRO / 23
- **Bertso berriak** Irabazleak eta galtzaileak. MIREN AMURIZA / 24

Erdiko kaiera

- **Musika.** Manel: mugak hausten dituen pop-a. GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Hedabideak.** *The Balde*-k batere kostatzen gabe bete ditu hamar urte. LANDER MUÑAGORRI / 28
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** GORKA BEREZIARTUA / 32
- **Abarrak** MIKEL GARCIA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Jose Ramon Beloki:** «Oraindik ez da aski preziatu AHTrekin lortutakoa». MIKEL ASURMENDI / 39
- **ETAren amaiera.** Zergatik ez lehenago? (nik nioen moduan). JULEN ZABALO / 43
- **Txaro Idiakez, telebistarako itzultzailea:** «Luparekin begiratzen da euskarazko bertsioa». MIKEL GARCIA / 44
- **Bero-beroa** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Antropologo batek ikasia Parisko polizien artean. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Segregazioa gure alde? XABIER MENDIGUREN ELIZEGI / 50



“Nitaz ari direnean beste batez ari direla iruditzen zait”

Juan Mari Arzak | Elenaren aita

Gatza eta piperra pil-pilean.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Bota zure sekretua.

Kalea sukaldari begiekin ikustea eta haur batek bezala pentsatzea. Adinarekin pertsona ume-tzen dela egia bada, geroztik eta errazago daukat!

Mundua 67 urte bete aurretik jubilatu ahal izateko borrokan, eta zu 69rekin...

Parisera edo Londresera Ataunera baino azkarrago sartzen den munduan non egongo naiz nire jatetxean baino lasaiago eta zoriontsuago? Traban nagoela esaten ez didaten artean, bazterrak nahasten segituko dut.

Printze-printzesei eta erakunde guztietako buruei eskua emateari esaten diozu bazterrak nahastea?

Garbi gera dadila politikariek atera nahi dutela gurekin argazkietan, ez alderantziz. Guri berdin zaigu politikari, *kaxero*, zein espiritu santuarekin ateratzea. Ea nor ausartzen den sukaldaritzaren unibertsitatearen inaugurazioan sukaldariak lekuz kanpo geundela esatera!

Zu bai, gure herriaren enbaxadore unibertsala.

Bizimodu normala daramat, lagun normalak dauzkat, eta normala zait nire lana ahal bezain ongi egitea. Gainontzekoaz ez naiz konturatzen. Pentsa, nitaz ari direnean beste batez ari direla iruditzen zait.

Umiltasun faltsurik ez, mesedez. Gauza jakina da denok daukagula hiru Michelin izar...

Ez naiz sekula sarien bila joateko bezain lehiakorra izan. Lehen izarra eman zidatenean erratu zirela pentsatu nuen, bigarrena etorri zenean ez zela posible, eta hirugarrena-

rekin erotu zirela. 22 urte dira ez zaiela zentzua itzuli.

Jarri ezazu zentzu pixka bat 50 jatetxe onenen zerrendaren osteko Aduriz eta Berasategiren arteko pikean.

Betikoa: gaizki agertzen direnak kexatu egiten dira. Noiz ikasiko dugu lagunaren lorpenengatik pozten? Lagunak irabaztean zuk ere irabazten duzu.

Hemen irabaziak dirutan neurtzen direla, *amigo!*

Gure jatetxeak ez dira errentagarriak, baina ur askotan arrantza egiteko modua ematen dute. Sekulako eskaintzak izan ditut ez dakit zenbat jatetxe zabaltzeko, baina zertarako? Bost jatetxe gidatu beharko nituzkeela pentsatze hutsak zorabiatu egiten nau.

Mahoma ere ez zen mendira joango mendia beregana etorri balitz...

Urte osoan egunero betetzen dugu jatetxea, eta uneotan, mundutik bizi gara. Nik gure herriaren aho-sabaiaren gustua egiten dut, eta zer erru daukat munduari guri gustatzen zaiguna gustatzen bazaio? Batzuetan, mundua Mirakruzen dago!

Munduak zer jaten duen ere ez du jakingo laster.

Bizitzan bi gauza dira ezinbestekoak: arnasa hartzea eta jatea. Sukaldaritzak, kultura orokorra den heinean, hezkuntza sistema txertatu behar da. Aspalditik ari gara esaten, aspalditik egiten digute entzungor, baina arrazoia dugunean egoskorak gara! ■



• ASTERKO GAIA •

Derry

Bakerako bidean oztopoak gainditzen

Garai berriak ari da bizitzen Ipar Irlandako bigarren hiria. Bake prozesuan murgildurik, komunitate nazionalista eta unionista inoiz baino gertuago daude. Kultura Hiriburuaren izendapena, Bloody Sundayren arazoaren konponbidea, Foyle ibaiaren gaineko Bakearen Zubiaren inaugurazioa, britainiar armadaren desagertzea eta biztanleriaren berezko baikortasuna aro berriaren seinale dira. Azaletik harago joanda, antzematen da konponbidea ez dela hain erraza eta bukaera ez dagoela hain hurbil. Zauriak sakonak dira eta edozein txinpartak ezkutuko mamuak esnatzeko arriskua du.

Testua eta argazkiak:

ANDER LEON

Bakearen Zubia ekainean ireki zuten eta eremu protestantea katolikoarekin lotzen du oinezkoentzat.



HIRIAREN IZENA izaten da bisitariarentzat lehen arazoa. Derry esanez gero, nazionalista-errepublikazale-katolikoa zarela antzeman-go zaizu. Londonderry aipatuta, protestante-unionismoa ari zara aitortzen. Jatorrizko izena Derry izanik –Doire, gaelikoz–, James III.a erregeak Londonderry bezala birbataillatu zuen 1613an, bere migrazio masiboaren politikan (*plantation*) Londreseko biztanleek izan zuten parte-hartzea gogorarazteko. Nazionalista irlandarrek ez dute inoiz izen hori onartu eta Derry izateko borrokan ari dira. 1984an Udalak izena aldatzeko baimena lortu zuen, baina Udalarena, ez hiriarena. Beraz, gaurko egoera kafkianoan Derryko Udalak Londonderryko hiria gobernatzen du. Nahaste-borrastea handitzeko, Kultura Hiriburua-
ren izendapenean Derry-Londonderry izena azaltzen da, gure Vitoria-Gasteiz bezala.

Derry-Londonderry Erresuma Batuko hiriburu kulturala izango da 2013. urtean. Ikuspuntu guztietatik, bake prozesuari bultzada emateko ikusi da nominazioa. Izendapen honek sentimendu bikoitza sorrazten dio Michael Cooperri. Cooper Sinn Feineko zinegotzia da Derryko Udalean eta Hiri Kulturalaren arduraduna. “Alde batetik Erresuma Batuko izendapena da, eta hori arbuizatzeko nahiko arrazoia bada, baina beste alde batetik hiriarentzat aukera asko zabalduko dira, publizitate ona eta turismoa erakarriko dituelako”. Behin hautagaitza sendotuta, irlandaratzeko asmotan dabiltza orain errepublikarrak: “Web orritik UK hizkiak kentzea lortu dugu, orain www.cityofculture2013.com

**“Zubiarena ideia ona da, eta
bakerako baliagarria, baina arazoa
zubiaren bukaeran dago. Edbrigton
armada britainiarraren koartela
izan da orain dela gutxi arte, eta
oroimen txarra utzi du hirian”**

JOHN KELLY, FREE DERRY MUSEOA

da helbidea, nazioarteko erakusketak antolatu nahi ditugu britainiartasun kutsua kentzeko eta noski, gaelikoari bultzada handia eman nahi diogu 2013ko ospakizunak aprobetxatuz” dio Cooperrek.

Barrikada ikusezinaren bestaldean unionistak ditugu. William Stewart, Apprentice Boys elkarte orangistaren bozeramailea da. Horretaz gain, soldadu eta polizia gisa egin du lan. Kultura Hiriburua-
ren gainean ikuspegi positiboa du: “Guztion arrakasta izan da, bi komunitateek elkarrekin ospatu genuen. Orain hiria berreraikitze-
ko aukera dugu, nondik gatozen ahaztu gabe eta bi komunitate ezberdin garelazazpimarratuz”.

Bi komunitate eta zubi bat

Hirian bi komunitate bizi direla ezin da ahaztu eta ez dago azpimarratu beharrik, segituan antzematen baita. Foyle ibaia da bien arteko “bake harresia”.

Eskuinaldean protestanteak bizi dira eta ezkerrean, hiriaren erdigunean, katolikoak. Errepublikazale hauen artean, XVII. mendeko harrizko harresiaren babesean, 300 bat lealista bizi dira, 6 metroko alantzeko hesi batek inguratuta eta hormetan irakur daitezkeen, “asediopean”. Historikoki zubi bakarra egon da bi komunitateak lotzeko, Craigavon Bridge. 1984an, hiriaren kanpoaldean autobia bat pasa zedin, Foyle Bridge ireki zuten, automobilentzako erabilgarria baina ibaiaren bi aldeak modu errazean lotzeko balio ez duena. Aurtengo ekainean, Bakearen Zubia inauguratu dute. Hiriaren bihotzetik, Guildhalletik, Edbrigtoneko zonaldera

Eskuinean, “Derry Askean sartzen ari zara” dioen Free Derry Corner ezaguna, disidenteen pintaketekin; ezkerrean, Bogside auzo katolikoa.



doana, hau da, katolikoak protestanteekin lotzen dituen. Oinezkoentzat izanda, “bake itxaropenaren ikur fisiko” gisa ikusia izan da. Hori da behintzat Joe Doranek, BBCko kazetariak aipatzen duena: “Balio bikoitza du zubi berriak. Alde batetik ikur arkitektoniko ikaragarri polita da eta turismoa erakartzeko tresna izan daiteke. Beste alde batetik, bi komunitateak hurbiltzeko asmoz eginda, helburua beteko du ziuraski, eta Edbrington elkartzeko gune bihurtuko da”. Errepublikazale beteranoek beste ikuspuntu bat dute: “Zubiaren ideia ona da, eta bakerako baliagarria, baina arazoa zubiaren bukaeran dago. Edbrington armada britainiarraren koartela izan da orain dela gutxi arte, eta oroimen txarra utzi du hirian. Derryko hiritar asko izan dira bertan torturatuak eta hortik atera ziren 1972an Bloody Sundayko sarraskia egitera. Hor prestatu zen nire anaiaren hilketa” dio John Kellyk, egun hartan hildako Michael Kellyren anaiak eta Free derry museoko arduradunak. Dena den, inork gutxik ukatzen du zubi berriaren balio sinbolikoa eta dagoeneko turistentzako amua ez ezik, bake prozesuaren ikur ere bihurtu da.

Ehunka turista ikusten dira egunero Derryko kaleetan barrena. Hiriaren garai zaharrak, ez hain zaharrak eta berriak eza-gutzeko asmotan. Hiriko alde zaharrean, harresiaren buelta, 1669ko setioaren historia, eraikin ikusgarriak eta eliza dotoreak bisitatzeko dira. Bogside auzune katolikoan barneratuz gero, XX. mendeko 60, 70 eta 80ko hamarkadetako historia azaltzen da, “Arazoak” (*Troubles*) izenarekin eza-gutzen den garaikoa: eskubide zibilen aldeko borroka, Free Derry Corner, Bloody Sunday, H blokeko presoengose greba edo auzoko hormetan dauden margolan politikoak. Turismoarako gidak IRAko preso ohiak izaten dira hiriaren alde honetan. Euskaldun ugari ikus daitezke Bogsidean. Kellyk laster antzematen ditu: “Egunero etortzen zaizkit museora eta laster dakit euskaldunak direla, janzkeragatik, ile mozketagatik... Oso nabarmena da interes politikoa dutela”.

Turismoaren kudeaketan arazo politikoak ere badaude. Free Derry Tours enpresan kexu dira “Derryk bakarrik ez du askorako ematen, gau asko ez dute hemen pasatzen turistek. Pakete batean saldu beharko litzateke ingurune naturalarekin, Donegalekin hain zuzen ere. Baina hori politikoki ezin da egin, Donegal Konderria Irlandako Errepublikako zatia da, eta gu ez, beraz ezin dugu kanpaina

“Errepublikarrek bakea erabili nahi dute urteetan terrorismoarekin lortu ezin izan zutena horrela eskuratzeko, Irlandako batasuna alegia”

**GREGORY CAMPBELL,
DUPEKO PARLAMENTARIA**

bateraturik egin. Ipar Irlandako Gobernuak ez du baimentzen. Gainera Belfastko Gobernuak hiriburua eta Erraldoien Galtzadaino ez du promozionatzen, Derry, gehiengo katolikoa duenez, ahaztuta dago”.

Ahantzuraren kexa oso zabaldua dago, eta ez bakarrik nazionalisten artean. Belfasten itzala oso luzea da eta inbertsioak erakartzeko lehentasunak non dauden argi markatzen ditu Ipar Irlandako Gobernu autonomoak. “Orain behar duguna lanpostuak dira, kalitate oneko lanpostuak. Derryko talenturik onenek ihes egiten dute hiritik, hemen lanpostu onik ez dagoelako. Hori frenatu behar dugu. Unibertsitatearekin ari gara lanean eta Fort Georgen industriagune teknologikoa sortzeko asmotan gabilta. Orain dirurik ez dagoela diote Belfastetik, krisialdian gaudela. Ez dira konturatzen gu beti egon garela krisialdian”, dio Sharon Meenan-ek, Derryko Udaleko prentsa arduradunak.

“Inoiz baino hobeto gaude, okerrago ezin zen-eta”

Bake prozesua martxan jarri zenetik, diru ugari heldu da Ipar Irlandara Europar Bata-





Ezker-eskuin: Joe Doran BBCKo kazetaria, Michael Cooper Derryko Sinn Feineko zinegotzia, William Stewart Apprentice Boys elkarte orangistako bozeramailea, Gregory Campbell DUPEko parlamentaria Wetminsterren.

sunetik, *Peace* egitasmoaren barruan. Ulsterreko Unibertsitatetik ebaluatzen da programa hori: “Ezinbestekotzat jotzen dugu *Peace* programaren jarraipena. Bakea ekonomia garapenarekin oso lotuta dago. Krisialdia asko zabalduko balitz konfliktoa berpizteko arriskua dago. Bake prozesua bera kolokan egongo litzateke”, diote.

Bake prozesuak bi adar ditu, politikoa eta soziala. Arlo politikoaren arrakastaren inguruan zalantza gutxi daude. Ostiral Santuko akordioak indarrean daude eta betetzen ari dira. Horren adibide DUP unionistak eta Sinn Féin nazionalistak duten koaliziozko gobernua, Ipar Irlandako autonomia kudeatzeko. Horrez gain, gehienak protestanteak diren Belfast hirian, Sinn Feineko alkatea dute. Derry “katolikoan” ordea, DUPEko Maurice Devenneyk zuzentzen du Udala. Itunak betetzen ari dira eta elkarlana aurrera doa. Alderdi nagusietako ordezkariak eta gizarte eragileak oso oso baikor azaltzen dira: “Inoiz baino hobeto gaude –esan ohi dute–, okerrago ezin ginen egon-eta”. Denek bat egiten dute prozesuarekin, baina beste komunitatearen ikuspuntuaz galdetuta, gauzak okertzen hasten dira. Gregory Campbell, Westminster-eko Parlamentuko kidea da East Londonderry eta DUP ordezkatzuz. Iritzi kontrajarriak ditu: “Ian Paisley eta Martin McGuinness Stortmonten elkarrekin ikusi zituztenean dena eginda zegoela uste zutenak oker zeuden, hori hasiera baino ez zen. Guk bakean sinesten dugu, baina errepublikanoek ez. Beraiek, bakea erabili nahi dute urteetako terrorismoarekin lortu ezin izan zutena horrela eskuratzeko, Irlandarekiko batasuna alegia, baina hor egongo gara gu hori gerta ez dadin”. Sinn Feinen kontrako iritzia dute. Cooper zinegotziak oso garbi du: “DUPEk ez du prozesuan sinesten, ez zuen entzun ere egin nahi. Erresuma Batuko

Gobernuak behartu zuen parte hartzera. Politikoak behartu ahal dituzu, baina komunitatea ez, eta hor dago arazoa. Batzuen gogo faltan eta besteen kontrako jarreran”.

Komunitate arazoak ez daude bakarrik unionisten aldean. Auzo katolikoetan mesfidantza oso zabalduta dago. Esate baterako, biztanleen eta polizien arteko harremanak sendotu gabe daude. Joe Doran kazetariak oso grafikoki azaldu du: “Bogsiden edo Cregganen lapurretara bat gertatzen bada, bertako biktima ez da komisaldegira salatzerara joango, errepublikazale ezagun baten etxera baino”. Sinn Feinetik polizia-etxera joateko animatzen dituzte, baina harremanak oso hotzak dira oraindik. “Krisia dela-eta gazte asko dugu kale kantoietan ezer egin gabe. Munduko edozein auzo langileetan bezala poliziarekin arazoak dituzte, lapurretara txikiak, droga kontuak... Baina horri gehitu behar diozu

hemen dugun iragana eta mesfidantza gauza naturala da”, dio Sinn Feineko bozeramale Cooperrek.

Baina gaur egun, neska-mutil desokupatu eta aspertu hauekin dagoen arazo nagusiak ez dira poliziarekiko harremanak. Gazte hauek jomuga dira disidenteentzat. Frustratuta eta haserre daude, autoritateari

aurre egiteko prest. Eta auzo katolikoetan, autoritatea Sinn Féin izaten da. Disidenteak dira bake prozesuaren mehatxu nagusia. 2010ean eta 2011n 180 lehergailuk baino gehiagok egin zuten eztanda Ipar Irlandan, haietako bat Derryko polizia-etxe nagusiaren aurkako auto-bomba, edota aurtengo ekainean Banco Santanderrek hiriko zentroan duen egoitza suntsitu zuena. “Disidenteak gutxi dira, baina ez dira asko behar min handia egiteko, Omaghen bezala”, diote DUPetik. Errepublikazaleen iritzia antzekoa da: “Gazteak eskura daude, langabezia, alkohola, krisialdia... Zarata egin ahal dute, baina badakite

“Orain dela urte batzuk eserita nengoen lurrean martxa ekiditeko.

Orain martxa orangista ospatu ahal izateko istiluak oztopatzen saiatzen naiz”

MICHAEL COOPER, SINN FEINEKO ZINEGOTZIA

errepublikano gehienak beren aurka gaudela. Hauteskundeetan ez dute ordezkartzarik lortzen, oso minoritarioak dira”. Doranen ustez, Ronan Kerr, 25 urteko polizia katolikoaren hilketa izan zen aldatzeko gakoa: “Aurtengo apirilean jendea kalera atera zen, hilketaren kontrako manifestazioetara, errepublikanoen erantzuna erabatekoa izan zen, egileak polizia aurrean salatzeraz deialdia eginez. Hor ikusi zuten inongo babesik ez zutela”.

Bake prozesuarekin bat ez datozen bi alderdi errepublikazale nagusiak ONH eta 32CSM dira, RIRA, Benetako IRaren ideiak konpartitzen dituztenak. Tommy McKearney *IRA iraultzatik parlamentura* liburuaren egilea da, eta prozesuarekin oso kritikoa: “Biolentziaren indarrean ez sinestea grabitatearen indarrean ez sinestea bezain absurdoa da” esan zuen bere liburuaren aurkezpenean. Horretaz gain ez da Legebiltzarrarekin fido: “Historian inongo iraultzarik ez da parlamentutik etorri. Horrelako erakundeak herria zapaltzeko erabiliak izan dira beti”. Beste disidente batzuek oso gogor jotzen dute Sinn Feinen aurka: “Ez dut Sinn Feinekin ezer hitz egin behar —dio RIRAKo preso ohi batek—, beraien iritzia jakiteko hobe dut Londresekin zuzenean harremanetan jartzea hemengo morroiekin denbora galtzea baino”.

Sinn Feinetik, ordea, disidentzia ekiditen eta disidenteak erakartzen saiatzen dira. “Ulertzen dut nondik datozen, baina ez dakit nora joan nahi duten. Argi eta garbi esango diet. Gerra bukatu da. Etor zaitezte politika egitera. Ongi etorriak izango zarete”, dio Free Derry museoko John Kellyk.

Istiluak 2011ko abuztuaren 13an

Abuztuaren bigarren larunbatean Ipar Irlandako martxa orangista garrantzitsuenak ospatzen da Derryn. 15.000 unionista inguruk hiriko harresietan eta erdigunean desfilatzen dute 1669ko hiriaren setioaren amaieraren urteurrena ospatzeko. Urtetan, katolikoek probokaziotzat hartu izan dute ekitaldia eta larritasun handiko istiluak izan ohi dira Derry hirian. Kultur elkarte errepublikarretatik gazteentzako txangoak antolatzen dituzte egun horretarako. Ur edo jolas parke batera, mendi buelta egitera... Gazteak kaleetatik kendu nahi dituzte istiluak saihesteko. Cooper zinegotzia disidentzia eragozteko lan aktiboan ibiltzen da: “Orain dela urte batzuk eserita nengoen lurrean martxa ekiditeko. Orain martxa ospatu ahal izateko istiluak oztopen saiatzen naiz”.

Hala ere, 2011ko abuztuaren 13an azken urteetako gatazka larrienak jazo ziren, hiriaren erdialdea eta Bogside auzoa kaos bihurtuz. Gau hartan bi komunitateen arteko “bake



Abuztuaren 13an
martxa
orangistak egin
ziren Derryko
auzune
katolikoetan
barrena. Irudian,
horietako bat
Berradiskidetze
Monumentuaren
ondotik pasatzen.

harresia”-ren inguruan harri, golf pilota eta koktel molotov jaurtiketak izan ziren. Bi bandoetako gazteek elkar ezagutzen dute, SMSak bidaltzen dizkiote elkarri erasoak egin baino lehen eta behin erasoak bukatuta. Elkarren ondoan bizi dira, baina ez elkarrekin.

Hezkuntza da gakoa

Hezkuntza izan daiteke bi komunitateen arteko hutsunean zubia jarriko duena, baina arlo horretan ere konponbideak urrun dirudi. Hiri osoan, 120.000 biztanle inguru izanda, eskola misto bakarra dago, Oaktree izena duena. Gai-nontzekoak eskola estatalak dira —unionisten seme-alabak eskolarizatuak daude— edo eskola pribatu katolikoak —errepublikanoen seme-alabak, askotan ere sexuaren arabera bereizituta—. Hor dago etorkizuneko erronka. Haurrak elkarrekin heztean. Baina ez dirudi horretarako borondaterik dagoenik. Auzo ezberdinetan bizi direnez, eskola ezberdinetara joaten dira. Hala ere, saiakera batzuk egin dira. Eskola estataletatik Free Derry museoa bisitatzera joaten dira eskubide zibilen aldeko borroka eta Bloody Sundayko gertaerak ezagutzera. Eskola katolikoetatik Apprentice Boys museora hurbiltzen dira, 1669an protestanteek katolikoak nola garaitu zituzten ikasteko. “Ume katolikoak jatorrak dira”, dio museo honen arduradun eta polizia ohi den Stewartek, “irakasleak ere ezagutzen ditut, askotan atxilotu izan ditut-eta”.

Umorez hartzen dituzte bakerako urratsak. Bizikidetzaren normalizatura heltzeak zaila dirudi, baina zailagoa ematen du iraganeko egoerara bueltatzeko. Kultura Hiriburua pasako da, Bake Zubia zeharkatuko dute eta berezko baikortasuna nagusituko da. Helduko da eguna, hiriko arazo nagusia Derry edo Londonderry izenaren ofizialtasuna izango dena. ■



Iñigo Iruin

«Erabaki politikoari soinekoa egiten dion jostuna da jurista»

“Itsasoan urak handi dire, murgildu nahi dutenentzat...”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

1980ko hamarkada, giro politikoa borborka, eta zu abokatu. Klasiko bat dirudi.

Bigarren edo hirugarren boteko abokatua naiz ni. Lehenbizi, aitaren lanbideak eta etxe-ko giroak eraginda, enpresaritza eta zientzia ekonomikoak ikasi nituen bost urtez, eta bertan geneuzkan zuzenbide irakasgaiek erakarririta deskubritu nuen nire bokazioa. Niretzat abokatuaren lana ez da, Sarrionandiak dioen gisan, diruaren truke arrazoia nori eman aukeratzea. Niretzat ofizio honen noblezia zure burua inputatuaren ondoan, eskaileraren mailarik apalenean kokatzean datza. Jakina orduko giro politikoak grina elikatuko zidala, baina denboraren joanak zuzenbidearen osotasuna bihurtu dit bokazio. Auzitegi Nazionalako kazetariak sarri jotzen didate adarra, “hik zuzenbidean sinisten duk!”. Sinesmen hori han akats larria da, nonbait.

Zer da zuretzat legea?

Zuzenbidea, legea, ezinbesteko tresnak dira jendartean. Ikuspegi klasikoarekin bat eginez, legea beti izan da boterearen adierazpena. Erakutsidazu kodigoa eta esango dizut nork agintzen duen. Hori hala da, ez dauka bueltarik, baina era berean boterearen makinarian soberan dagoen pieza da legea, eta balio dion neurrian baizik ez du erabiltzen. Bistan da justizia ez dela beti legearekin egiten, eta Estatuaren itzala izanagatik, edozein eredu edo sistema politikotan hori egin behar duen erreminta da. Lenin ere, bere garaian, ez zen alferrik mintzo legalitate sozialista baten printzipioaz.

1980ko hamarkadatik hona errotik aldatu dira legeak eta zigor-kodeak.

Nabarmenak dira aldeak. Pentsa, nire hastapenetan, talde armatuarekin kolaborazio deli-

tua urtebeteko kartzelaldiarekin zigortzea zen ohikoa, eta egun, bost urteko gutxiene-koa exijitzen du legeak. Arma eta leherkariak gordetzeagatik ere askoz kastigu apalagoak ezartzen ziren orduan, garaiko zigor-kodeak, egungoak ez bezala, zigorrak bi gradutan jais-teko aukera eskaintzen zuelako. Prozedurei dagokienez, hobera egin dugula sinestarazi nahi digute, hamar eguneko inkomunikazio epea inkonstituzionaltzat jo eta bostera jaitsi zutelako, baina horrek ez du tortura desager-rarazi. Zigorrak gogortzea eta defentsaren bermeak murriztea dira lege antiterroristen ezaugarri nagusiak. Estatuak beti gordetzen ditu eskura ustez beharrezkoak jotzen dituen mekanismoak. 1982an, PSOE gobernura iritsi eta berehala, hiru lege publikatzen dira: lege antiterrorista, Habeas Corpusaren legea eta atxilotuak abokatuaren laguntza jasotzeko duen eskubidea bermatzen duen legea. Bigarren eta hirugarren publikazioek atxilotuaren eskubideak garantizatzen eta areagotzen badituzte nola sortzen da estatu terrorismoa-ren bigarren belaunaldia? Lehenbiziko legeak beste biak desmuntatzen dituelako. Formalki

Nortasun agiria

1953an sortu zen Hernanin (Gipuzkoa). Bere garaian Madrilén senatari eta Gasteizen legebiltzarkide izan arren, abokatu lanagatik da ezaguna. Azken urteetan, besteak beste, 18/98 edo Egunkaria bezalako makro-azietan, edo ilegalizatutako ezker abertzaleko alderdi desberdinak defendatzen ikusi dugu. Aspaldi luzean, ezker abertzaleko kide esanguratsua da.





“Garbi dago aparatu polizialek, eta batez ere Guardia Zibilak, gustukoa ez dutena trabatzeko mugimenduak egingo dituztela”.

eta itxuraz, eskubide guztiak daude bermatuta, baina praktikan, Estatuak arma guztiak mahukan gordetzen ditu: torturaren erabilera, arau orotatik salbu dauden eremu beltzak, inolako kontrol politiko eta judizialik gabeko jokabide polizial autonomoak... Lehen, gaur eta beti, Estatu batek edozein unetan joko eman diezaioketen erremintak gordetzen dizkio bere buruari, legalitate eta konstituzionaltasunaren zelofanean bilduta, beti ere.

Hori gutxi ez, eta politikotzat dauzkagun auziei presio mediatikoa gehitu behar zaie.

Auzitegi Nazionaleko magistratuak aitortzen dute presioak ikaragarriak direla. Oraingo fiskalburua izendatu zutenetik nabarmena da fiskaltzaren kriterioak oihartzun mediatikoari begira finkatzen direla. Hor daude De Juaren kasua, Ino Galparsororena... Auzitegi Nazionalaren tripak hartu behar dira kontutan, ulergaitza ulertzeko. Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak harreman eta menpekotasun zuzena dauka gobernuarekin, eta munduko beste edozein auzitegitan baino paper esanguratsuagoa dute indar polizialek. Pentsa, zenbaitetan polizia epailearen laguntzaile izan beharrean, epailea bihurtzen da poliziaren laguntzaile. Horrek erabakiak eta sententziak politikoki kutsatzea dakar, eta presio mediatikoak joko politikoan eragin zuzena duenez, joko politikoak presio hori audientziara ekartzen du, auzitegia txotxongiloen antzoki bilakatuz. Dena polizia eta fiskaltzaren komenientziara mugitzen denez, Auzitegi Nazionaleko instrukzio epaileak bigarren mailako aktoreak dira.

Eta gu bitartean, Euskal Herriko presio sozialarekin sententzietan eragin nahian.

Presio horiek Auzitegi Nazionalean izan dezaketen eragina islatzen duen pasadizo bat daukat. 18/98 makro-epaiketan, defentsaren alegatu baten aurrean, Angela Murillo presidenteak ozen esan zuen: “Bost axola zer dioen Estraburgok!”. Auzitegi Nazionaleko sekzio bateko salako presidentari ez bazaio axola Europako auzitegi behinenak dioena, pentsa zenbat eragiten dion Euskal Herriko presio sozialak. Baina horrek ez du esan nahi presio hori alferrikakoa denik, oso garrantzitsua da, audientziara oihartzun urrun batzuk baizik ez dira iristen ordea. Hura bunker bat da, erabakiak hartu behar dituztenak oso babestuta daude, eta iristen zaien apurra ez dute aintzat hartzen. Auzitegi berezia da, eta salbuespenak salbuespen, bertara heltzen diren magistratuak Estatuaren interesen defentsan itsututa daudenak dira. Horregatik da hain opakoa, hain hermetikoa, oinarrizko eskubideen hausnarketatik abiatuta barneratzen zaila. Horregatik jotzen dira benetako batailak Auzitegi Gorenean.

Zure lanean gertutik ikusten dituzu atxilotuak, presoak, atentatueta zaurituak, mehatxatuak... Asko hitz egiten da aro berri honetan biktimek jokatu beharreko paperaz, memoriaren batailaz...

Azkenaldian, biktimek erabaki politikoak baldintzatu eta arrazoitzeko erabili dira. PPren arma izan dira PSOEn gobernuak akosatzeke, baina bistan denez, biktimek ez dira eragile politiko eta ezin daitezke izan. Biktimekiko errespetuan oinarritu behar da, baina pentsaezina da horien arabera erabaki politikoak hartzea. Hori gertatzen ari da eta gertatuko da hurrengo hilabeteetan, baina berriz diot, begirune osoarekin jokatuz euren lekuan kokatu behar dira, ez gorago eta ez beheago. Derri-gorrezkoa da errekonozimendua, derrigorrezkoa da erreparazioa, alde guztietako biktimen onarpenerako bide luzea daukagu urratzeko. Baina ez gaitezen engaina, politikaren begietatik kontatutakoa ezin liteke herri honen kontakizun historikoa izan. Hau izan denaren historia hemendik urte askora idatziko da, historiagile eta zientzialariek izkiriatu beharko dute, objektibotasunetik, egiarekiko konpromisotik, alderdikeria eta interesetatik libre. Pretentsio ausartegia iruditzen zait azken 50 urteotako historiaren kontakizuna gaur bertan idatzita utzi nahi izatea. Ariketa horrek distantzia tenporala eskatzen du, sentimenduen zipriztinetatik salbu egotea. Pasioak ez daki kontakizun historikotik idazten.

Pasioak hoztuta, zer ondorio eta irakaspen atera dituzu aurreko negoziaketa saio eta prozesuetatik?

Enfrentamendu politiko-militarraren maila gorenean iritsi zen Aljer, baina orduan Estatuak ez zuen muineko arazo politikoaren irtenbidea bilatu nahi izan, enfrentamenduaren murrizketa eta desaktibatzea baizik. Lizarran abertzaleen arteko akordioa erdiesten da Estatuari aurre egiteko asmoz, baina hor ere konponente militarra mantentzen da. Loiolan ere badago konponente hori, eta hor ere Estatuari begira geunden, Estatuaren erreferentea. Horregatik da oso desberdina prozesu honen atarira ekarri gaituen bidea, eta horregatik erreparatu behar zaio perspektiba berri batekin. Bate-tik, azken bi urteetako planteamendua eskusiboki bide politikoaren aldekoa da, eztabaida klabe politikoan soilik bideratzen du. Bestetik, orain arteko dokumentu guztietan Estatuarekin negoziaketa zegoen presente, baina orain hori bigarren planora pasa da. Estatuari begira egon gabe, nazioartean oihartzuna duen eta euskal jendartearen zentratzen den indar metaketa prozesu batean jarri ditugu buru-bihotzak, gizarte horrek positiboki baloratu ditzan helburu subiranistak. Estatuarekin kontrastatzeko ordua iritsiko da, baina gizartearen bultzada eta ahalmena muinean izango dituen prozesuaren ondorio

"Rajoyri ezin hobeto etor dakiok Aieten egon ziren izen esanguratsuen babesa, kolpe baxuak amortiguatu eta prozesuan aurrera egiteko"

gisa. Aurreko prozesuetatik zerbait ikasi badut gizartearen prozesuaren parte izan behar dela da. Ezin dira ardura guztiak zuzenki inplikaturiko eragileengan utzi. Ez dago prozesu politikorik jendarterik gabe.

Demagun prozesua ezker abertzalearen barne eztabaidarekin hasi zela. Horren inguruan tinta eta izerdi asko isuri da geroztik.

Has nadin barne eztabaidaren bukaeratik eta Sorturen aurkezpenetik. Politika egin nahi badugu ezker abertzalea legeztatu behar da. Ezin da politikarik egin alderdi politikorik gabe. Horren aurrean, Estatuak marko legala jartzen dizu, inbutua estutzen duten baldintza eta eskakizunak. Hori ikusita ezker abertzaleak alderdi bat sortzeko deliberoa hartzen du eta beraz, inbutua onartu beharra dauka. Ez da erabaki erraza izan, ezker abertzaleko sektore jakinetan asko kostatzen da digeritzen. Aurkezpen egunean ez ziren gutxi izan hotzikarak eta eztarrian gora zabuka ari ziren bihotzak, baina uste dut asmatu zela, halako garrantzia duen erabakia kanporatzen duzunean atzera bueltarik gabeko bidean sartzen zarelako. Niretzat, inflexio puntuak eta atzera bueltarik gabeko erabakiak daude. Kasu

EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU



AZKEN HITZA Bateraezinak

“Ni Esnaolarekin hasi nintzen, eta garai hartan Esnaolak berak eta Castells-ek, abokatu izateaz gain, pisu politiko handia zuten ezker abertzalean. Gatazkak presoak sortzen zituen, presoek abokatuak behar zituzten, abokatuak presentzia nabarmena hartzen zuen, eta diskurtso politikoa horien bidez proiektatzen zen neurri handi batean. Urteekin gauzak asko eta askotara aldatu dira ordea, eta orain garbi daukat, abokatu eta politikari lanak bateraezinak direla”.

honetan, funtsezko inflexio puntua 2009ko urritik 2010eko otsailera izandako barne eztabaida mamitsua da, eta barne eztabaida horren ondorioak kanporatzeak dakar atzera bueltarik gabeko egoera. Sorturekin ezker abertzalearen erronka sinesgarritasunaren bataila irabaztea bada, eta publikoki aurkezten badituzu hain estatutu engaiatuak, ez daukazu atzera bueltarik, gizarteak badaki zein den zure apustua, ez dago besterik.

Sinesgarritasun hori sakon sustraitu dute azken asteetako gertakariak.

Aieteko konferentziarena oso urrats garrantzitsua izan da. Lehen niotsun gisan, nazioarteko inplikazioa eta euskal jendartearena bi elementu ezinbesteko dira prozesu honetan. Ziur nengoen ETA bat etorriko zela Aieten egindako eskaerarekin eta aurrerantzean ere adierazpen horretan ageri den bide-orria betetzen joatea espero dut. Nazioarteko babesak oso interesgarria iruditzen zaidan beste irakurketa bat dauka, ordea. Une honetan Espainiako Estatuaren ezaugarrietako bat barne kohesiorik eza da.

Estatuaren aparatu desberdinek ez dute norabide berean arraun egiten. Hori hala, garbi dago aparatu polizialek, eta batez ere Guardia Zibila, gustukoa ez dutena trabatzeko mugimenduak egingo dituztela. Ikusi besterik ez dago zenbait komunikabide elikatzen egiten ari diren lana. Bestetik, etorkizun hurbilean giltzarria izan daitekeen botere judizialean behin betiko irtenbide baten kontrako indarrak daude, edo bestela esanda, botere judiziala bitan zatituta dago. Aparatu desberdin horiek ahaleginak eta bi egingo dituzte iragarrita dagoen PPren gobernu berria norabide jakin batean presionatzeko, eta horren aurrean, Rajoyri ezin hobeto etor dakiok Aieten egon ziren izen esanguratsuen babesa, kolpe baxu horiek amortiguatu eta prozesuan aurrera egiteko. Orain PPK mesfidati eta mespretxuz begiratzen badio ere, ez harritu etorkizunean nazioarteko babes taldea aliatu gisa erabiltzea prozesuan sakontzeko.

Zer pisu izan dezake arlo juridikoak prozesu honetan? Hor dago presoen gaia, esaterako.

Edozein giza gatazka, gatazka juridikoa da funtsean, baina era berean, politikaria tarteko denean ez du juristak agintzen. Normalean, Estatuak aspektu juridikoak aitzakia gisa erabiltzen ditu denborak markatu eta aurrerapen politikoak ekiditeko. Ondo bidean, arlo juridikoa bukaeran dator, garrantzitsuen borondate politikoa baita, erdiesten den itun politikoa. Erabaki politikoari soinekoa egiten dion jostuna da jurista. Gauzak horrela, marko juridikoa Estatuaren ezkutua da, eta azterketa errealista eginez, ezin da ahaztu amnistia ez dela existitzen ez konstituzioan ez zigor-kodean. Konstituzioak garbi dio ezin dela indultu orokorrik eman, beraz kasuan kasukoak soilik aurreikusten ditu legeak. Horri gehitu behar zaio 2003an Aznar-en gobernuak tarte gutxi uzten duten aldaketa basatiak txertatu zituela zigor-kode eta espetxe araudietan. Egoera horrekin presoen irteera nondik etor litekeen? Izan liteke, Irlandan bezala, lege berezi bat moldatzea preso politikoen egoera pertsonalaren arabera askatze progresiboa arautzeko, baina segur aski estatu espainolak kasuan kasuko azterketaren eta erabakiaren alde egingo du. Horregatik uste dut lege orokor espezifiko ezin bada, pautak komun batzuk definitzen dituen marko orokor espezifiko bat behintzat lortu behar litzatekeela presoen kolektiboarentzat, askatze aldi desberdinak egonagatik. Hori zigortutako presoen kasuistika litzateke. Preso prebentiboei dagokienez, orain egonkortu den egoerak ihes egiteko eta delitua errepikatzeak arriskua desagerrarazten dituen, preso prebentiboen askatzea asko erraztuko da. Baina lehen niotsuna, dena borondate politikoren menpe dago. ■



goienakluba

Abantailaz betetako kluba!



Olentzero & CO! Musikaleko **DVD-a** salgai

DVD-aren
prezioa:

14 €

(Bidalketa gastua **barne**)

Goiena Klubeko
kideentzat prezio
berezia:

12 €

(Bidalketa gastua **barne**)

Eskatu eta zure etxeko buzoian jasoko duzu!

943 25 05 05 • kluba@goiena.com

www.goienakluba.com

Dispertsioaren hamaika aurpegi

JOSU TRUEBA LEIVA

Euskal presoen senide eta lagunek atzerriko kartzelatarara egin behar dituzten bidaiak islatzen ditu *Km-0: Dispertsioaren hamaika aurpegi* proiektuak. Sakabanaketa politika salatze eta ondorioak azaleratzeko asmoz, argazki erakusketak eta ikus-entzunezkoa antolatu dituzte. 5 urte dituen Urkiren eta aitona-amonen bizipenak ekarri ditugu orriotara.




Amonaren alboan etzan da Urki, autoaren atzealdean. Nekatuta dago eta badirudi Hendaiara iritsi aurretik loak hartuko duela. Aho-zabalka galdegin du: “Aitite, zergatik joan beharra daukagu Parisa?”. “Badakizu zergatik, Urki, egizu lo lasai”, erantzun dio aitona, bidaia luzea hasi aitzin.



Aitona-amonekin
bizi da Urki,
gurasoak
espetxean
ditu-eta. Horiek
bisitatzeko, ordu
luzeko bidaia
egin beharra
daukate, autoz
lehenik, trenean
ondoren, gauez.
Frantzia eta
Espainia
estatuetako
kartzeletan,
700 euskal preso
inguru daude
sakabanatuta,
beren etxeetatik
630 kilometrora,
batez beste.



Behin Parisen, azken itxaronaldian ere motel iragaten da denbora. Urkik, baina, aitona-amonak ditu berarekin une oro. Azkenean, senideentzako pasealekua zeharkatu eta aita eta amarekin egoteko unea iritsi zaio 5 urteko mutikoari. Gaur egun, gurasoak jada ez daude Parisen: ama Madrilen du Urkik eta aita berriz, Murtzian, semearengandik 850 kilometrora. ■





EUROPAR ETIMOLOGIAK :

Demokrazia hitz grekoa da.

HERRIAREN IRITZIA ezagutzeko -ZUZENEAN
ERAGITEN DION ERREFORMAREN GAINEAN -
ERREFERENDUMA PROPOSATZEN DENEAN ...
... BANKA IZUTU EGIN DA, ELITE POLITIKOA
PRESIONATU, ETA KONTSULTA BERTAN GELDITU DA.

BANK hitz germanikoa da

Cabrón hitz espainiarra da.

EGIN KONTU EPAITZEN ZAITUEN JUJE ARROTZAK
-ETA GERLA-DUZITEGI HORRETAN JOKATZEN ARI
DIA ZURE HURRENGO URTEAK - INPARTZIALA IZAN
EZ EZIK IRAINDU EGITEN ZAITUELA.

BAGOAZ euskal hitza da.

TTAKUN (H)ERRENKA

Miseria bilatzaileak

Baiki, Jose Luis, nork esango zigun ETaren akaberak prentsan idazten harrapatuko gintuela, eta noiz eta orain, kontuaz dagoeneko milioika hizki idatzi diren honetan. Zer idatzi? Gelditu al da ezer esateke?

Sentimendu kontrajarriak aipatu dituzu, eta aski esanguratsua da jendeak izan dituen erreakzioak zeinen ezberdinak izan diren. Kontu honek dituen ertz ugarien testigu nolabait, zeren, afera batzuk dioten bezain erraza balira garbi legoke nortzuk egongo ziratekeen pozik, zeintzuk goibel. Alta, denetarik ikusi dugu. ETaren kontrako borrokan engaiatutako batzuk triste “terroristen xantaiari men egin zaiolako”, beste zenbait pozik “demokrazia eta zuzenbide estatutak garaitu dituelako”. ETaren jarraitzaileen artean, antzera. Batzuk pozik borroka militarra uzteko momentu perfektua dela sinetsirik, borroka politikoa garaile izateko. Beste zenbait triste, armak horrela uztea porrotaren eta errenditzearen seinale delakoan. Indiferentziatz, akiturik, hartu dute albistea ez gutxi halaber. Neroni dagokidanez, aitor dut, espero baino entusiasmo handiagoz jaso nuen.

Ez naiz batere originala, nik ere urte asko alferrik igaro direla irizten duten horietakoa naiz, borroka armatua tematzeak onura baino askoz kalte handiagoa eragin duela pentsatzen dutenetakoa. Erraza da hori orain esatea, bai, eta kontrakoa adieraztea, besteak beste, ilegala; bakarrikzeta huts batean ez erortzearen, ez naiz luzatuko. Gainera, inguruotan oraindik dauden bidegabekeria saldoa ikusita, pentsatzen nuen asko kostatuko zitzaidala gogo-beroturik ipintzea. Kontent jarri nintzen ordea, aski kontent.

Gerora, aldarte horren zergatia aurkitu nahian, ohartu naiz, nagusiki, arrazoi batengatik ipini naizela hain alai: miseria bilatzaileak izateari utziko diogulako. Izan ere, gauza

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padron

bakarrera mugatu ohi ziren, eskuarki, berehala pipertzen ziren indarkeriaren inguruko diskusio amaiezin horiek: nork miseria gehiago zenbatuko bere inguruan. Batek 1.000 hildako aipatzen bazituen, bere aurkariak Estatu espainiarrak frankismoaz geroztik eragindako biktimak ekarriko zituen hizpi-

dera, lehenengoak egunero bizkartzainekin ibili beharra gogorarazten bazuen, besteak “eta tortura kasuak zer?” esango zuen. Batek Miguel Angel Blanco izena ahoskatuko zuen hots handiz, besteak Lasa eta Zabalenak. Batek mehatxuengatik ihes egin behar izan dutenak mahai gaineratuko zituen, besteak dispartzioaren kariatz hildako senideak. Hala xe pilatzen ziren bakoitzaren aldamenean miseriaren zaborteak, norberaren zaborteak hurkoarena baino handiagoa ei zelako harro. Ahaztua zenuen biktima edo bidegabekeriaren bat gogoratuz gero, pozarren ipiniko zinen, aurkariak atzera bota ezingo zizun argudio bat topatu zenuelakoan. Eztabaida irabaziko zenuelako segurtasunaz jaurtiko zenion aurkikuntza, behazunez hordi, baina orduan hark ere beste biktima bat aterako zizun sakelatik oharkabea. Urte guztioan argudio ezin finagoak landu ditugu, zer eta gure miseria albokoarena baino hagitzez dorpeagoa zela frogatzen ahalegintzeko. Esango didazue nola arraio bizi daitekeen horrela.

Zerbaitengatik akituta baldin banangoen, horrela ibili beharragatik zen. Zaborteak handiegia pilatu zait aspaldi handitik eta ez dut miseria txapelketa honetan jarraitzeko batere gogorik. Kontrakoa pasatzen bada oraindik miseria gehiago pilatu ahal izango dute anitzek, baina arren, aska ditzatela behingoz, halanola, Jarrai-Haika-Segi, 19/98 eta Bateragune auzietan zigortutako lagunak. Aska ditzatela orain. ■



«
Urte guztioan argudio ezin finagoak
landu ditugu, zer eta gure miseria
albokoarena baino hagitzez dorpeagoa
zela frogatzen ahalegintzeko.

Esango didazue nola arraio
bizi daitekeen horrela
»

Isabel Etxeberria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Luma eta lubakia

Gehien maite dugunarentzat hobere-
na nahi izaten dugu. Hoberena izate-
n ikusi nahi dugunari kritika
zorrotzena egiten dakigu, hobekun-
tzak ahal bezain fite etortzea nahi
dugulako. Euskal idazleek —euskal prentsak,
oro har— zentsura oso gutxi praktikatzan
dute, behintzat kontra joaten saiatzen dira,
zentsura demokrazia oztopatzen duen tres-
na ikaragarria baita. Ondorioz, talde arma-
tuaren bukaera dela eta kolore guztietako iri-
tziak irakurri ditugu, bukaera horren
tenoreari doakionez ere. Bigarren gerra
mundialaren garaian, Charles de Gaulle jene-
ralak armak hartzera deitu zuelarik, eta arma
horiek isildu zirelarik, ez zuen inork zalan-
tzan jarri erabakia. Algeriako erresistentziak,
FLNk armak hartu zituelarik ez zuen inork
FLNren jarduera militarra zalantzan jarri. Bi
kasu horietan erabaki horien ondorioa garai-
pena izan zen. Gurean, funtsezko arazoak,
militante askoren egoera gori-gorian dagoe-
nean, harresia desmuntatzen hasten dira.
Harresia gero eta azkarragoa behar dugu
estatuek hasi duten abertzaletasunaren kon-
trako propagandaren kontra irauteko.

Jarduera armatuaren bukaerarekin edito-
rialista batzuen lumatik ematen du konflik-
toa bukatzen dela, eta gainera lehenagotik
bukatzan ahal zela. Egutero inguratzen gai-
tuzten bi estatuen prentsa irakurtzen ibiltzeko aukera



GAIZKA IROZ



Presoen hurbilketarik ez
da igartzen. Presa
gehiagi dugula,
prozesuak bere
erritmoa daukala eta
pazientzia izan behar
dela. Noski hori guztia
badakigu, baina
estatuek martxan
jarraitzen dute



daukagunok, alderdi bakarrek jarduera mili-
tarra bukatu eta, ez da deus aldatu! Bake pro-
zesurik ez dago, gerla psikologikoa, prentsa-
ren bitartez eramaten den gerla ideologikoa
sekulan baino azkarrago ikusten da.

Azaroan Frantziako Estatuan euskal mili-
tanteen kontra bi epaiketa gutxienez iraganen
dira. Presoen hurbilketarik ez da igartzen.
Presa gehiagi dugula, prozesuak bere erri-
moa daukala eta pazientzia izan behar dela.
Noski hori guztia badakigu, baina estatuek
martxan jarraitzen dute. Harriduraz hartu
dituzte ezker abertzaleak jarri dituen muga-
rri berriak, diskurtsoa berregokitzeke une
bat behar izan dute, baina hor daude eraso-
an. Frantses prentsa doi-doi jarduera milita-
rraren bukaeraren aipamena egitera behar-
tua sentitu da.

Gure mugimenduaren proiektua askatzai-
lea izatea da, horretarako iritzien agertzea
oso gauza ona da, herritarrak osasuntsu dau-
dela erakusten digute eta beldurrik ez dutela,
zentsurarik ez dutela nahi erraten digute.

Herri oso txikia gara, potentea gurea
berriaz asmatzen dakigulako. Estatuak erral-
doiak dira, ez datoz mesede egitera, zapal-
tzera datoz. Guri dagokigu
orain, gurea eta gureak babes-
tea, denak etxera itzuli arte.
Gaurko honetan ere lubakia

daude. Historiak epaituko gaitu. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



armaturik gabeko biharamunetan
nolakoa den elkarbizitza gure
inguru hauetan, gai izarra izaten
ari da hedabideetan orokorki, eta espaino-
letan bereziki. Gu geu zonbiak baikinen
tratatzan gaituzte, gure egunerokotasunaren nolakoa
esplikatzera iristen direlarik. Ez dut nik ezer diferenterik
bizi, mugalde hauetan noiznahi urdinen kontrola ez bada
berdeena izaten baitugu, biztanlego kotxedunek hego
haizearen alde uso bandoa osatu balute bezala. Gazteei
alto, gu bezalakoei paso. Egun goizean, astean bitan edo
bisitan kafea hartuz etortzeko ohitura zuen Irungo zine-
gotzia heldu da bere kotxean. Ez du orain arte bezala

Borroka

txoferrik ekarri, ez du kanpoan zelatan geldi-
tzen ziren bizkartzainen laguntzarik behar.

Tabernako guztiak agurtu eta ohiko lagunekin
aritu da kalakan, datozen hauteskundeetan hartu behar
duten zaplaztekoa mintzagai. Irentsia du egoera berriak
maila galtzera eraman dituela, nahiz berak, erretreta
potoloan sartu denez, ez duen pairatu. Baina gogorra
izan omen da gazteagoentzat, herri honi beren onena
eman dioten horientzat, zuten aulkia galdu
dutenentzat. Bilduren arrakastaren bikti-
mak, langabeen zerrendak gizontzera egin
dutenak. Hor ere, klaseak daude, denak ez
dira Odon Elorza. ■



Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Kontraesanak eta kontraesanak

Ustez estatu laikoan bizi gara; gure egutegiko ia jai guztiak, ordea, erlijio-jatorrikoak dira. Protestarik egin ez ezik, lasai asko joaten gara oporretan Aste Santuan; ustez oso ezkertiarak izan eta erlijioak kontu pribatua izan behar duela aldarrikatu arren.

Ustez NaBaikoak ere badira eliza eta estatua banatzearen aldeko, baina Nafarroako Parlamentuan harrera egiten diote Done Mikel Aralarkoaren irudiari.

Ustez berdintasunean bizi gura dugu (berdintasun-legeak eta guzti ditugu!), baina inguruan milaka eliza katoliko, ebanjeliko, Jeobaren Lekukoen... ditugun arren, inor gutxik egin du kexurik, meskitak zabaltzen hasi diren arte.

EAJ-PNV ere ba omen da akonfesionala; baina aurreko urte guztietan bezalaxe, meza santuarekin eman diote hasiera Forondako piknikari.

Ustez Bildukoak homofobiaren kontra daude; datozen hauteskundeetarako Gipuzkoako zerrendan, aldiz, batere lesgaytranszale ez den hautagai bat ageri da.

Ustez gure agintariak ere ez dira homofoboak, ezta sexofoboak ere. Ekainaren 28etan, sexu-askatasunaren aldeko sekulako adierazpenak egin ohi dituzte, norberaren afektibitatea ez ezkutatzeke dei egitera ere heldurik. Bilboko alkate Iñaki Azkuna ez da salbuespen,



IÑIGO AZKONA

baina gero berak gobernatzen duen udalak sexuarekin zerikusia daukaten adierazpen *oso barnekoak* debekatzen dituen ordenantza onartzen du. Aste Nagusian izan ziren eraso homofoboak salatzeke egin zen kontzentrazio jendetsuan ere, udaleko ordezkari bakarrak Bildukoak. Alkate jaun ez homofoboaren arrastorik ez.

Ustez, inkesten arabera, Estatu espainiarreko biztanle gehienak M15 mugimendukoak aldeko dira. Inkestek, berriz, espektro politikoan beste muturrean legokeen PP alderdia jotzen dute garailetzat hauteskundeotan.

Ustez legeak betetzen dituzten agintariek, interesatzen zaienean baino ez dituzte betetzen. Adibideak ugari: espetxe-politika, Kukutzaren eraistea...

Denok izaten ditugu kontraesanak. Esaterako, sexu berekoak ezkontzeko eskubidearen alde sutsu borrokatu dut; halere, harreman batean hamabi urtez nabilelarik, ez naiz ezkondu. Era berean, ateo militantea naizen arren, Aste Santuko prozesioak gustuko ditut. Baina, tira, hori beste historia bat da. Azken batean ni ez naiz inoren ordezkari,

boto-emaile xumea baizik, eta ez diot neure botoa preseski PPri emango. Kontraesanak eta kontraesanak daude. ■



«
Denok izaten ditugu
kontraesanak. Esaterako,
sexu berekoak ezkontzeko
eskubidearen alde sutsu
borrokatu dut; halere,
harreman batean hamabi
urtez nabilelarik,
ez naiz ezkondu
»

TXANDAN

Josu Amezaga



Preso eta iheslari politikoak etxera, horixe premiazo erroka. Baina zein ote da horretarako formula egokiena? Hamarkadetan zehar amnistia izan dugu helburu, duela 35 urte bezala. Baina ezin ahaztu orduko haren izaera bikoitza: batetik oinazez betetako herri borroka baten emari pozgarria izan zen. Bestetik, frankismoa eta haren kolaboratzaileak ere babestu zituen amnistia, haien krimenak inoiz epaitzeko edo sikieran onartuak izateko bideak itxiz; Espainiako Erregeak 1977ko Amnistia Legea sinatu zuenean, hartara, besteak beste bere burua ere zuritu zuen.

Amnistia?

Amnistia, etimologiari jarraiki, amnesia bat da. Baina ahaztu, ezagutzen duzuna soilik ahaztu dezakezu. ETaren ekintzak ondo ezagutzen ditugu, guzti-guztiak errebindikatu baititu. Milaka pertsonak prezio altua ordaindu dute horiek egiteagatik. Estatuak eta bere kudeatzaileek ordea ez dituzte beraien chunka hildakoak, milaka torturatuak eta abarrak aitortu ere egin. Horregatik behar da formula egokia bilatu, gatazkaren ondorioei buruz lortzen den hitzarmenaren arabera sekula aitortu ez diren ekintzak estalita baina ahaztu gabe gelditzeko arriskua baitago. ■



ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Bakearen soinu banda

John Cageren 4' 33" piezan interpretatzaile batek partitura ireki baten aurrean ez du pianoa jotzen lau minutu eta hogeita hamahiru segundoz. Beste tresnetarako bertsioak badaude. Orkestrarako ere bai. Zoragarria da kiribilean entzuteko, lehendabiziko mugimendua, bereziki, nire ustez hoberena, bular-estugarria, esaterako, isilezko konpas lasai batzuen ostean tronpetak sartzen ez direnean.

JENDEAK galdetuko du: "Zer egiten ari zinen 2011ko urriaren 20an, 19:00etan?". "Ba, agiria noiz aterako zain, (ahaztuko zaigu?) iragarrita zegoen-eta". Ordenagailuaren dirdaiaz argiztaturiko aurpegien lerroak ez du anekdota bilduma zabalerako ematen, ezta "ebem, ebem", epika askotarako ere. Galdera, lehenbizikoz, biharamunean egin zidaten, Iruñeko irrati bateko kolaboratzaile guztioi bezala. Bide batez eskatu ziguten une historikoa ilustratzeko musika bat aukeratzeko, hor zeukatenen artean, bestela saiatuko zirela aurkitzen.

MUSIKAREN eragin baltsamikoa aipatzen da. Uxue Apaolazak Gregorio Allegriren *Miserere*aren CDa entzunik, sms batez mezutu zidan bronkodilatadorea zela. Ama zenaren hil bezperaz oroitu nintzen. Berak arnasa ezin harturik, erizainei deitu behar izan nien. Aztoramendu erdian zerbait esan nahi zuen; ez ziotenez ulertzen, utzi zidaten hurbiltzen. "Ponme música, Ángel Mari, que me abogo". Ordu batzuk lehenago *Radio Clásica* aditzen egona nintzen, bera lo zegoen bitartean.

TOKI gehiagotan ikusi dut ariketa bera, ETaren amaierarako abesti bat proposatzearena. Kultur eremuan hitza bataila guztiak galtzen doan honetan (irudien kontra, sentimenduen kontra, musikaren kontra), nago ez ote dugun gordeleku eroso bat soinuaren esanezinean bilatu, mundu paralelo horretan, Ruper Ordorikak definitu bezala.



JOSU SANTESTEBAN

JULIAN Barnesen *Vigilance* ipuinean protagonistak eskaileretatik behera botatzen du kontzertuan eztulka ibilitako aldamera, musikak birikei dakarkien ona aintzat hartu eta errukitu gabe. Yehudi Menuhin biolinista eta orkestra zuzendariak esan ohi zuen jendea bere kontzertuetara joaten zela pneumologorenera joan aurretik azken neurri moduan.

IRRATITIK irtenda, berehala damutu nintzen egindako hautaketa musikal presazkoaz, ETaren armak uzteko erabakia "laguntzen" egokiagoak izan zitezkeen bi konposizio bururatuta (beranduegi): John Cageren 4' 33" edo Emanuel Chválnen zerbait. Iraganeko hutsak zuzentzeko, aukera galduak zuzitzeko, geure burua edertzeko, idatzi ohi dugu, hau, esaterako (beranduegi).

EUSKAL HERRIA "ce petit peuple qui chante au pied des Pyrénées" definitu zuen Voltairek. "Autour d'une table", mahai baten inguruan, esan izan balu, erretratu biribila. Afalostean kantuan aritzeko ohitura ez dut batere maite. Solasaldia eteten, saihesten du. Dena den, elkarte gastronomikoetan politikaz hitz egitea debeku da. Horrela, inori ez zaio mokadua kontrako eztatritik joaten. Harritzen nauena da euskal sukaldariak garai berriaren zaporea hobekien adierazten duen plater bat oraindik proposatu ez izana. Bidean da seguruenik *errelato* goxo hori.

EMANUEL CHVÁLa txekiarrek konposatutako lan guztien artean batek jarraitzen du jokatu gabea, agian ez delako batere baltsamikoa: *Concerto per tosse e orchestra*. Kontzertua eztul eta orkestrarako. Gliereren Kontzertua koloratura eta orkestrarako atseginarenean ifrentzua izan liteke. Exijentzia handikoa da.

Bel cantoa aspaldian utzitako kantari zahar ajetsua, arnasbide gaixotikoa eskatzen du, partiturak zehaztutako hats bahitua, arnasestuak, eztatari garbitzeak, eztul bitonala eta, hondarrean, hil korroka emango dituen. ■



irudia:
Antton Olariaga



BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Irabazleak eta galtzaileak



XDZ

I

Politikari erretxinduek
bakeagatik bederen,
aro berrian ere ez ote
dute hartuko atseden?
Hor ari dira sailkatu nahian
alderdi bakoitza zer den,
baina “irabazle” eta “galtzaile”
izendatu baino lehen,
argi dezagun zer irabazi
eta zer gal daitekeen.

II

Ondo jokatu ezkeru gauza
asko irabazten dira:
izan daiteke lagun berri bat,
partxis edo mus partida,
izan daiteke apustu on bat,
karrera bat, futbol liga...
Nahiz ta jokotik jokora asko
aldatzen den perspektiba,
irabazteko itxaropena
jada garaipen erdi da.

III

Zer da ordea gal daitekena?
horra galdera gordina
PNV-k galtzear dauka
Bere jaungo hautsezina.
PSOE-ri ere pasatu zaio
bototan gauza berdina.
Edonorentzat izan liteke
galtzea gauza samina
txarrena ez balitz galdutakoa
berreskuratu ezina.

IV

Bukatu ez den gatazka bati
ekiten ari garenez,
gudu-zelaia ezin da bete
“galtzaile” ta “irabazlez”.
Etorkizuna jokoan dela
asmatzea ez da errez,
baina bide bat zabalik dago
ez itxi inork mesedez!
Horretan inork ez du galduko
nahiz denek irabazi ez.

V

Historikoki mugarri bat den
momentuan gaudelarik
guk ez genuke irabazi nahi
harro sentitzeagatik,
baina ez dugu galtzaile izan nahi
zigorrik merezi barik,
berdinketarik ere ez dugu
desio joko hortarik,
baizik guztiok abiatzea
baldintza berdinetatik.

VI

Aurrean dugun paradoxari
nahi nioke errepara:
“derrotatuok” itxaropentsu
ta pozik gatoz plazara,
“Irabazleak” aldiz dutena
amorruta ikara.
Izenak bazter utzita denok
irabazle izango gara
elkarbizitza antolatzeke
giro on bat lantzen bada.



DOINUA: “Azken arnasa emango nuke”



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Musika

Manel:

mugak hausten dituen pop-a

Salmenta errekorrak, urrezko disko bat, prentsa espezializatuaren eta entzuleen gorak eta bibak. Katalanez abesten den pop musikan ez zuten halakorik ezagutu aspaldi, Manel taldea agertu arte. Bai, fenomenoari eman diezaiokezu garrantzia; baina handia izanik ere, puskaz interesgarriagoak dira haien kantak. Eta horiek erakustera datoz Donostiara, Bilbora eta Iruñera azaroaren 15ean, 16an eta 18an. Funtsean, Manel musika egiten duten lau gazte baitira, foku guztien argipean dauden arren.

GORKA BEREZIARTUA

PEP GUARDIOLAREKIN konparatu izan dituzte inoiz, eta ez da oso oker botatako tiroa, Bartzelonako entrenatzaileak bezala adierazpenetan umil, emaitzetan distiratsu izatea baita Manelen bereizgarrietako bat. Mutiko zintzoak, oinak lurrean edukitzen dakiten

Ezker-eskuin, Roger Padilla, Guillem Gisbert, Martí Maymó eta Arnau Vallvé, Manel taldeko kideak.

horietakoak, arrakasta dotoreziaz jasaten abilak. “Ez genuen espero” dio Arnau Vallvé taldeko bateria-jotzaileak telefonoaren beste aldetik, aurtan argitara eman duten bigarren diskoak (*10 milles per veure una bona armadura*) beraien herrialdean, baita handik kanpo ere,



lehenbizikoak baino onarpen zabalagoa ekarri diela-eta galdezka hastean. “Denbora pixka bat pasa da eta orain bai, apurka-apurka sinesten ari gara”.

2008ko *Els millors professors europeus* diskoarekin entzuleak eta kritika harritzea lortu zuten. Formula: pop musika zaindua, folk ukitu nabarmenaz; intimismora iritsi gabe oso hurbilekoak egiten diren hitzak, moldaketa aberatsak eta ukelelearen soinu etxeko marka gisa. Bigarren lanean aldatu egin da hori, sokazko instrumentu txikiari ez diote hainbesteko protagonismorik eman. “Jendeak asko identifikatu gaitu ukelelearekin eta Guillemek [Gisbert, taldeko abeslaria] zuzenean jotzen zuen tresna bakarra zen. Baina inoiz ez dugu gure bereizgarritzat hartu. Momentuak izaten dituzu, Guillemek gitarra ere jotzen du, banjoa ere badaukagu... Gustatzen zaigu gauza berriak probatzea, eta beraz ukelelea erabiltzen segitzen dugu, baina ez dauka hainbesteko protagonismorik”. Musika berria egiten hasita, muga ere izan zitekeelako, agian? “Kantak egitean ez, gitarraren antzekoa delako. Mugatu, estetikoki mugatzen zuen, oso soinu konkretu batetik abiatzen zarelako eta azkenean denak aurrekoaren antza hartzen du”.

Eta ez zuten nahi disko berria *Els millors professors europeus (bis)* izatea. Fortunak ausartei egiten die irribarre eta hori jakinda sartu ziren estudiora, *10 milles per veure una bona armadura*-n zerbait diferentia eskaintzeko asmoz. Diskoa grabatzeko prozeduratik hasiko dira aldaketak. Lehenbiziko lanean etxetik kantak oso mamituta eraman zituzten. “Bigarrenean berriz –azaldu du Vallvék– estudioan sartu eta gauzak probatzen hasi ginen, aurretik prestatuta geneuzkan ideien gainean, baina denok batera aproba eginez. Grabatu, ezabatu, berriz grabatu, dena ezabatu berriz... Ez dakit azkenean nabaritu den, baina horretan aurreko diskoaren ezberdina izan da”.

Ez da, beharbada, lehenengoa bezain erraz sartzen den diskoa, ez da hain bat-batekoa, ez ditu hainbeste *single*, nolabait esateko. Izango da kanta askotan uko egin diotelako errepikak erabiltzeari. Vallvék dioenez, jendeak esan arte ez ziren konturatu horretaz. “Ez dago errepikarik!” esaten ziguten eta, egia da; eta ez dakit zergatik atera diren gehienak horrela. Kantek testu asko daukate eta letra motarengatik, askotan istorioak kontatzen dituztelako-eta, errepikak sartzea problema izan daiteke, kontakizuna mozten duelako”. Dena den, badira errepikadun kantak ere, *Boomerang* bezalakoak, nahiz eta leloa ez izan

erabat ohikoa. “Kanta horren gauza arraroa zera izan zen: pentsatu genuela alderantziz egitea. Errepika hustu, nolabait, eta estrofe-tan jarri indarra”. *El Miquel i l’Olga tornen* piezan ere antzeko zerbait gertatzen da. Harremana hautsi ondoren berriz itzultzea erabaki duen bikote baten istorioa da eta leloak dio “oker gabiltzala bezain argi dago, egin egingo dugula”. Melodiak eta Gisela Fullà-ren bigarren ahotsak transmititzen duten baikortasunak, kontrastea egiten du istorioak iradokitzen duen amaiera tristearekin.

Istorio hurbilak

Kanta horretako pertsonaiak benetakoak ote diren galdetzea saihestezina da, Manelen beste askotan bezala, izen propiodun protagonistak baitituzte istorioek. Baina ez, lagunarteko txantxa modukoa dela dio Vallvék: “Bada Espaldamaceta izeneko kantautore kataluniar bat, laguna dugu, Madrilen ezagutu genuen jotzera joan ginen batean. Berak badauka kanta bat *Al Miquel l’ha deixat l’Olga* izeneko [“Olgak Miquel utzi du” izango litzateke euskaraz], eta guk disko honetarako

kanta hau egina geneukan, ez genuen espresuki jokoa egiteko sortu, baina ikusita kantaren gaiak bat egiten zuela, keinua egin nahi izan genion”.

Istorio hurbilak dira Manele-nak, eguneroko egoera arruntetatik aterak, baina lirismorantz eta malenkoniarantz egiteko joera dute, baita batzuetan –*Aniversari*n, berbarako– errea-

lismo magikotik hurbil ibiltzeko ere. Hitzek pisu handia baitute talde honetan eta kontzertuetan ere antzematen da hori. Kanta eta kanta artean asko hitz egiteko ohitura daukate, abeslaria *storyteller* bikaina da eta taldearen labeletako bat bihurtu da. “Aurreneko biran oso baliagarria izan zen: Guillem istorioak asmatu eta esplikatzen hasten zen, eta pixkanaka istorio hori kanta bihurtzen joaten zen. Horrela jendea zer esaten ari zaren entzuten geratzen da, arreta zeureganatzen duzu, kantatzen dira eta jotzen hasi zarenerako badakite zertaz ari zaren”. Bigarren biran hori ere ez dute bere horretan errepikatu ordea, Herrialde Katalanetan entzuleak ohitura dauzkatelako honezkero. “Kataluniatik kanpora joatean balio du oraindik, azalpena gaztelaniaz egiten duzulako eta jendeak badaki kantak zertaz hitz egiten duen, nahiz eta gero hitzak erabat ez ulertu”.

Katalanez, mugak hausten

Maiz aurreneko diskoarekin zerua ukitzen duten taldeek bigarrenarekin zorua jotzen

“Jende askok utzi egin dio kanpora irteten saiatzeari. Askok esaten dizute: ‘Ez du merezi Madrilen saiatzeak ere, ez gaituzte ulertuko’”

ARNAU VALLVÉ, BATERIA-JOTZAILEA

Kenneth Branagh-en *Much Ado About Nothing* filmeko zita shakespearear bat baliatu dute Manel taldekoek bigarren diskoa izendatzeko. *10 milles per veure una bona armadurarekin* entzule katalanak ase dituzte eta atzerrian bide berriak zabaldu.

dute. Ez da hau izan kasua, bistan denez, ez alderdi garrantzitsuenetik —musikaren aldetik, alegia—, ezta publikoaren aldetik ere. Askok harrituta jaso zuten berria: katalanez abesten duen talde bat Espainiako Estatuko diskorik salduena? Bai. 10.000 kopia aste bakarrean, zuzen-zuzenean salmenta zerrenden lehenbiziko postura. Bere estiloari fidel izanda eboluzionatzeko egin duen ahaleginak emaitza onak eman dizkio Maneli. Eta hortik Iberiar Penintsula zeharkatzera, baita normalean hizkuntz gutxituetan egiten den musikari gaingiroki baino begiratzen ez dioten hedabideetan agertzera ere. Muga batzuk hautsi ditu Manelek.

Beste batzuk hausteko daude oraindik: musika mundua utzi eta erretiroa hartzeko moduan leudeke taldeki-deak, gaztelaniazko prentsan katalanez kantatzeari buruz galdetu dieten bakoitzeko euro bat kobratu izan balute. “Hizkuntza kanpora ateratzeko muga izan daitekeela egia da, neurri batean: kanta batek gehiago edo gutxiago hunkituko zaitu esaten duenaren arabera eta erraz ulertzen baduzu puntu gehiago daukazu alde. Baina era berean, badago ohitura moduko bat... Jende askok utzi egin dio kanpora irteten saiatzeari. Ez dakit Euskal Herrian gauza bera gertatzen den, baina Katalunian askok esaten dizute: ‘Ez du merezi Madrilen saiatzeak ere, ez gaituzte ulertuko’. Eta mentalitate horrek ere eragin du agian, talde gehiago ezagun ez egitea”. Konplexuak alde batera utzi eta entzule berriak bilatzearen alde egin du Vallvék, katalanez musika ona beti egin izan dela aldarrikatuz: “Guk ere hasieran ez genuen batere argi ikusten, baina managerra ideia horrekin zebilen, aurrera egin eta ondo atera da”.



Euskal Herriko entzuleekin konexio berezia daukatela dio Manel taldeko bateria-jotzaileak. “Bilboko kaleetan ibiltzea eta kontzertuan egon den jendea hitz egitera hurbiltzea, oso berezia da”. Herrialde Katalanetatik kanpo, Galizian eta hemen izaten ei dute harrera beroena. “Eta Madrilen, kataluniar asko bizi delako han; baina tira, leku bakoitzak dauka zer bait” dio, diplomaziaz. Ingalaterran ere aritutakoak dira, baina irteera horiek anekdotikotzat dauzkate, taldeak bere kasa antolatzen baititu, gogoia daukatelako eta irabazi asmorik gabe. Horretan nabaritutako dute, apika, Guardiolarekin diferentzia: musika munduko Champions Leaguean jokatzeko ia ezinbestekoa dela, oraindik, ingelesez kantatzea. ■



Hedabideak

'The Balde'-k batere kosta gabe bete ditu hamar urte

Har ezazu, doan da-eta. Hala izan da sortu zenetik *The Balde* aldizkaria. Hamar urte igaro dira lehen zenbakia argitaratu zutenetik: irudiari eta grafismoari garrantzia emanez, kultura gaiak ildo ofizial eta ohikoetatik urrun jorratu dituzte, eta mundu osoan dauzkate irakurle eta kolaboratzaileak.

LANDER MUÑAGORRI

"EXISTITZE HUTSA ARRAKASTA DA". Hala dio Koldo Almandoz *The Balde* aldizkariaren koordinatzaileak, eta arrakasta hori hamarkada oso batez luzatu da. Abenduan kaleratuko da aldizkariaren 60. zenbakia eta horrekin batera, hamar urte beteko ditu *The Baldek*. Euskaraz eta ingelesez argitaratzen da bi hilabete behin, eta izenak berak dioen bezala, doan eskuratu daiteke. Hasierako proposamena utopikoa zela onartu du Almandozek, baina "aldizkaria ez dugu sekula negozio bezala ikusi, gure zaletasuna da, eta horrek lanean jarraitzea ahalbidetu digu. Aleren batean publizitate gutxi sartu baldin bazaiagu, adibidez, horrek ez du proiektua baldintzatu".

Artea era "herrikoian" eskaintzen aritu da hamarkada batez *The Balde*, arkitektura, argazkigintza nahiz ilustrazioa, besteak beste. "Lantzen ditugun gaiak modu elitistan eskaintzen ziren askotan beste aldizkarietan", eta horregatik, aldizkaria doan banatzeko hautua hartu zuten, kultura ahalik eta jende gehienarengana iristeko. Filosofia horrekin argitaratu zen 2001eko abenduan agerkariaren lehen zenbakia, *Naparheid* fanzinetik zetozen hainbat lagunaren eskutik. "Gure zaletasunei jarraipena eman nahi genien, eta guk gustuko genituen gaiak bilduko zituen aldizkaria egitea erabaki genuen", oroitu du Almandozek. Eragin izeneko komunikazio eta grafikagintza enpresa ere sortu berria zuten, eta euskarri horrek argitalpenen bat garatzeko aukera ematen zien.



***The Balde* Family**
goiko argazkian.
Edukiak estetika
bezainbeste zainduz
munduko leku
ugaritara iritsi da
aldizkaria.

Irudiak, estilo-marka

Hastapenetan, kultur gaiak "ildo ofizial eta ohikoagoan" lantzen hasi ziren, baina pixkanaka ibilbide eta izaera propioa garatu du aldizkariak. "Irakurri dugun liburu bat, ikusi dugun erakusketaren bat edo bururatzen zitzaizkigun bestelako gaiak biltzen hasi ginen". Bilaketa eta zaletasunak uztartu dituzte lan taldeak, eta kolaboratzaileek parte hartzea ere ezinbestekoa izan da: Euskal Herriko eta nazioarteko argazkilariak, ilustratzaileak, idazleak, arkitektoak... Alor ugaritako sortzaileen lanak jasotzen ditu *The Baldek*, batzuetan artistei aldizkariaren parte hartzeko gonbitea luzatzen zaielako, besteetan artisten

proposamenak jasotzen dituelako, Almandozen esanetan artistentzako plaza den aldizkariak. “Etxean bertan eta kanpoan egiten ari diren sorkuntza lanak ikus ditzakegu aldizkariari esker; gu bakarka iritsiko ez ginatekeen lekuetara ailegatu gara bat-bateko kolaboratzaile horiekin”.

Atzerriko kolaboratzaileei dagokienez, *The Balderen* elebitasunak atak zabaltu dizkiela uste du Almandozek, eta era berean, erdal mundura ere gerturatzeko aukera eskaini diela. “Guk badakigu gure hizkuntza zein den, eta kanpora ateratzeko zein hizkuntza erabili nahi genuen ere bai: ingelesa”. Aldizkariaren publiko potentziala “mundu osoa” dela dio, eta elebitasun horren ondorioz Frantziako edota Ingalaterrako kolaboratzaileak ere ohiko bihurtu direla aldizkarian, Euskal Herrikoen ondotik.

Baina idatzizko hizkuntzari bezainbesteko garrantzia edo gehiago ematen dio irudiari *The Baldek*. “Argi geneukan irudiaren edo grafismoaren alorra azpimarratuko genuela”, dio Almandozek. Irudia bilakatzen da maiz aldizkariako muina, eta ez lagungarri soila: “Grafismoa edukia izan daitekeela sinesten dugulako”. Hala ere, idatzitakoari ez dio garrantzirik kentzen, gaien inguruko zertzeladak eskaintzen baitituzte testuetan, sakontzeko makulu gisa. “Informazio pixka bat jartzen dugu, museo batean dagoen erakusketari buruz, esaterako. Eta irakurleak sakondu nahi izango balu, baditu horretarako bestelako bideak”.

Esperimentatzeko aukera handia eskaintzen du *The Baldek*. Diseinatzaileek testuaren arabera egiten dute lan, eta alderantziz. Koordinatzaileek pentsatzen badute ilustrazio edo argazki batek idazleren bati zerbait iradoki diezaiokeela, zerbait egiteko proposatzen diote. “Joko hori egitea asko gustatzen zaigu, bi hilabete behin argitaratzeak aukera ematen baitigu”. Ondorioz, orri bakoitza ezberdina izaten da, orri batetik bestera diseinua goitik behera aldatzen baita. “Ez dago uniformetasunik, oso kaotikoa da. Diseinatzaile ugariarekin egiten dugu lan, eta nire ustez kaos hori estilo bihurtzea lortu dugu. Estilo anarkikoa bihurtu da gure zigilua”.

Aldizkaria kalean musu-truk jartzen da, koordinatzaileen esfortzuari esker. “Edukiz, irudimenari eskaintako aldizkaria da *The Balde*, baina kalean aldizkaria doan jartzeko ere, irudimentsu jokatu nahi izan genuen hasieratik” dio Almandozek. Harpidetzen eta publizitatearen bidez finantzatzen da aldizkaria, hor ez dute ezer berririk asmatu; baina publizitatea bi eratan eskaintzen dute. Orrialdeetan doazen iragarkiak alde batetik, eta

banaketa puntuetako iragarki moduluak bestetik. Azken horiek, “proiektuaren laguntzaile eta parte dira”, eta horregatik, iragarkiaz gain, aldizkaria irakurleentzat eskuragarri jartzen dute euren lokalean. Era horretan, banaketan gastu gutxiago dauzkate.

Webgunean parte-hartzea sustatuz

Aldaketa zaleak dira eta proiektu berriak garatzen ari dira *The Balde* eta horregatik aspaldi egin zuten apustua papereko aldizkariaren alde ez ezik, webgunearen (www.thebalde.net) alde ere. Orain arte argitaratutako 59 zenbakiak eskuragai daude, doakotasunean pauso bat

harago emanez. Eta bi hilabete behin argitaratzen den aldizkaria izanik, sareko euskarria egunero berritzeko aprobeztatzen dute, “papereko euskarriaren hainbat gauza kanpoan geratzen zaizkigu-eta”.

Edozein modutan, *The Balderen* sareko edizioak duen proiekturik aipagarriena, beta prozesuan dagoen *Arteziak* atala da. Bertan, nahi

duen orok bere lana erakutsi dezake, webgunea erakusleho bezala erabiliz. Proiektu horren atzean, aldizkariaren duen filosofia bera dago: “Jendea gauzak erakutsi behar zaizkio, baina gauzak euren gisan egiten ere utzi behar zaio, ez dena murtzikatuta eman, gaur egun kultura prefabrikatu eta murtzikatua bizi baikara”, Almandozek hitzetan. *Arteziak* atalak duen xarma handiena gauza berriak aurkitzean datzala uste du; horrenbeste, hainbat lan saretik papereko euskarriara pasa direla. “Bien arteko elkarreagina dago, proiektu beraren parte diren heinean”.

Ez dira datei lotutako ospakizunak egitearen aldekoak eta *The Balde*ko kideek etorkizunean daukate begirada jarrita.

“*Arteziak* proiektuari emango diogu bultzada, eta jendeak parte har dezan garatzen jarraituko dugu”. ■



“Guk badakigu gure hizkuntza zein den, eta kanpora ateratzeko zein hizkuntza erabili nahi genuen ere bai: ingelesa”

KOLDO ALMANDOZ, THE BALDE

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadrabus.com

Liburuak

KRITIKA

Hondoratu eta salbatuen historia

Helduen literatura

Gema Lasarte

HAU GIZON BAT BADA TITULUA irakurri nuenean, artean Primo Leviren itzulpena zela jakin gabe, interresgarria iruditu zitzaidan eta pentsatu ere egin nuen maskulintate berrien inguruan jardungo zuela. Konturatu nintzenean Primo Levirena zela, ez neukan Auschwitzeko kontuak astintzeko gogo handirik. Baina irakurri nionean Auschwitzeko aldia izan ez balu, ez zukeela, segur aski, inoiz idatziko, gogoratu nintzen *Le Murmure des fantômes* idatzi zuen Boris Cyrulnik idazle juduarekin eta beste erresiliente baten narrazioa topatuko nuelakoan gogoz ekin nion leitzeari. Beraz, gosea, hotza eta heriotza *in extremis* bizi, gaintitu eta kontatzera ausartu zen kimikari doktorearekin egun batzuk pasatzea deliberatu nuen.

Kimikariak aitortzen du Auschwichetik atera berrian idatzi zuela kontakizun hau, eta ezin beste-lan izan, kontaketa-objektibotasunak eta zehaztasunak kimikari baten doitasunean ez ezik, gertutasunean, oso bertan bizitutako eta metatutakoan hartzen baitu arnas. “Ez dugu gurerik deus:



Hau gizon bat bada.
Primo Levi.
Itzulpena: Mikel Iurtia.
248 orrialde.
20 euro.

arropak kendu dizkigute, oinetakoak, baita ileak ere; mintzatuko bagina, ez gintuzkete entzungo, eta entzungo bagintuzte, ez ligukete ulertuko. Izena ere kendu digute”. Gizonaren suntsiketaz gain, Levik kontakizuna historia mingarri, krudel eta hunkigarriz bete du. “Halakoak baitira gure historia guztiak, ehunka mila historia, denak bereziak eta denak halabehar tragiko eta harrigarri batez mamituak. Gazez kontatzen dizkiogu elkarri”. Finean hondoratuen eta salbatuen historia nor bakoitza bakartasun etsigarri eta basa bizia, bizi-rauteko lehian hezia.

Zaharrenen, ahulenen eta musulmanen heriorako bideak etenik gabekoak dira testuan, “izan ere, ezkilak beti egunsentian jotzen baitu eta orduan diana da, baina eguerdian jotzen badu” barrakoietan giltzapertzea eta ahulenak, zaharrenak, ez deusenak hautatzea esan nahi baitu eta hautatuek gaseranzko bueltarik gabeko bidaia hastea. Salbatuek hurrena ezkilak jo arteko bizia lortu dute.

Orrialde hauetako pertsonaiak ez dira gizonak. Haien gizatasuna lurperatua izan da. Emakumerik ez dago, krematorioetan desagertu dira, hurrekin, zaharrekin eta gaixoekin batera. “Baina Lorenzo gizona zen; aratza eta kutsatu gabea zen haren gizatasuna, ukapenezko mundu honetatik kanpo zegoen hura. Lorenzori zor diot ni neu gizon bat nintzela ez ahantzia”.

Eta liburu hau, lekukotasunaren hizkuntza erabiliz, grinarik gabea dela aitortzen du Levik. “Ez biktimaren arranguraria, ez mende-katzailearen sumindua, hitza orduan eta sinesgarriagoa eta eragingarriagoa dela-koan”. Zuek zarete epaileak.



Tolosa

Liburu azoka azaroaren 18tik 27ra, San Frantziskon

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Musika kaxa.
Ain_1.
MusikHerria.
Iraupena: 40'05".
8 euro.

Folka izan daiteke unibertsala eta apurtzailea

ARRASATEN sortutako boskote honek oso ibilbide berezia egin du orain arte: ez zuten kontzerturik egiteko asmorik, are gutxiago diskorik, baina kantak eta poesia interpretatu, emanaldiak egiten hasi, diskoa argitaratu eta orain geldi daude taldekide bat kanpoan dagoelako. Etiketatu gabeko folka egiten dutela esango nuke nik, runbatik, flamenkotik eta Balkanetako musikatik edaten duena; beraiek, baina, nahiago dute esatea zer-

bait intimista egiten dutela. Folka beraiek eraldatua eta interpretatuta, gaztea, bizi-bizia eta neurri batean apurtzailea ere bilaka daiteke. Diskoan *tempo*, giro eta melodia ugari daude; are gehiago, taldekide guztiek abestu eta errezitatzen dute, emaitza anitzagoa bilakatuz. Gitarra, kaxa, biolin eta ahotsarekin hamabi bidaia, sentimendu eta bizipen.

www.myspace.com/ain1arrasate

Ain_1

«Takoiekin munduaren taupadei erritmoa jarritz gustatzen ez zaigunari aurre egiten diogu»

Ain_1 hainbatek egiten duzue eta oso irekia dirudi... Ideia bat, melodia bat, hitz batzuk... dira beti osotasunaren jatorria eta oinarria. Horren bueltan osatzen dugu gainerako dena, eta esango genuke nahiko era irekian eta kreatiboan egiten dugula.

Musika kaxek ez al dute bada beti doinu berbera?

Disko honetako kanta askok izaera ziklikoa dute, lau-zortzi akorderen bueltan egindako kantaren bariazioak. Ziklikotasun horretan sortutako kanten gogoratu ziguten musika kaxaren ideia. Hala ere, musika kaxak ez du beti soinu berbera; saio bakoitza berezia da. Ikusleei ere parte hartzea eskatzen diegu, eta horrek musika kaxa zabal-tze bakoitza bakar egiten du.

Kanta batzuetan, hain ohikoa ez den errezitatzea hautatu duzue...

Lehen saioa abesti batzuk jo eta



poema batzuk errezitatzeko asmoarekin egin genuen. Ordutik beti saiatzen gara testu errezitatuak sartzten. Musika Kaxa da diskoko poema errezitatu bakarra, baina badira beste poema batzuk ere. Poesiak eskaintzen du gauzak zuzen eta hain argi ez esateko aukera, interpretatzera gonbidatuz.

Kaxa eta biolina. A ze bi instrumentu, eta zenbat bidaiarazten diguten...

Ain_1 izeneko bidaiaren taupadak eta olatu dantzaria dira bi hauek, hain zuzen.

Ederra da Gaban arnasa kanta, eta are eta goxoagoa euskalkian...

Sehaska, maitasun, izarapeko kanten ez dute soinu bera batuan egiten badira. Goxogoxo belarrira xuxurlatzea beti da gozagarri, eta are gehiago norbere euskalkian.

Beldurra nabari zaizue erraietatik ateratako abestia da?

Azken aldiko gertaeren aurrean batzuk zein urduri dauden ikusita, hemen gaudela esatea nahi genuen. Horrek eskatzen zuen jarrera indartsuagoa, beharbada ilunagoa. Guk jarrera flamenkoa deitu diogu, guk ere badakigulako takoiekin munduaren taupadei erritmoa jartzen, bularraldea tente jarrita gustatzen ez zaigunari aurre egiten. ■



Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

3,54 euroan salduko ditu liburu elektronikoak Susa argitaletxeak



JOAN DEN ASTEAN aurkeztu zuen Susa argitaletxeak liburu elektronikoak saltzeko egitasmo berria. Modu onean (3,54 euro) eta kopia eragozteko DRM teknologiarik gabe plazaratu dituzte liburuak, EPUB eta PDF

formatuetan. Argitaletxeak azaldu duenez, saldatuko liburu bakoitzaren irabaziak honela banatuko dituzte: 2 euro idazlearentzat eta euro bat argitaletxearentzat (gainontzeko 0,54a zergei dagokien kopurua da). 142 liburu dauzka eskura www.susa-literatura.com/ebook helbidean sartzen denak.

• Rafa Ruedak *Enaren Geometria* diskoa aurkeztean esandakoak jaso zituen *Berriak*:

«Argi dago dauden disko denda gehienak desagertzeaz daudela, eta supermerkatuetan edo saltoki gune handietan kulturari oro har eskaintzen zaion lekua gero eta txikiagoa dela. Beraz, saltzaileek ez badute halako esfortzurik egiten musika zabaltzeko, sortzen dugunoi gelditzen zaigun bide bakarra bitartekaritza hori erditik kentzea da».



JOSEBA BARRENETXEA

• William A. Douglass antropologoa elkarriketatu zuen *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak: «Euskal identitatearen inguruan dimentsio ugari daude, ez esentzia konkretu bat. Ez dago euskaldun guztiek elkarbanatzen duten identitate bateratu bat. Nik eza-gutu nituen baserrietako aitona batek ez du zerikusirik gaur egun Interneten dabilen gazte batekin. Agian, aitona euskara galdua izango du eta gazteari agian ez zaio batere interesatuko folklorea, baina euskaraz jakingo du ikastolan ikasi duelako».

Ruper Ordorikak

disco berria plazaratu du Elkar diskoetxearen eskutik. Hamaika kanta berri erregistratu ditu *Hodeien azpian* lanean. New Yorken egin du grabaketa, Steve Ulrich, Skuli Sverrisson, Kenny Wollesen eta Ben Monder lagun hartuta. Oñatiarraren hogeigarren diskoa da eta aurkezpenean adierazi zuenez, zenbait letra idaztean berarengan ezohikoak diren erregistroak baliatu ditu, kronikara hurbilduz.



WWW.RUPERORDORIKA.COM

Berinak jaialdia joan den astean hasi zen Senperen eta azaroaren 20ra bitartean gaur egungo artean oinarritutako ibilbidea eskainiko dio bertaratzen den orori. Euskal Herriko eta Frantziako 20 artistaren eskulturak, pinturak, argazkiak, marrazkiak eta beste hainbat sorkuntza lan ikusteko parada izango da, baita artisten euren azalpenak entzuteko ere.

Civiarte programa martxan da berriz Iruñean: aurreko edizioetan atzera begira jardun du hiriburuko teatro, dantza eta musika ekimenak, XX. eta XXI. mendeetako abangoardiak aztertuz, besteak beste; aurtien berriz, beldurra eta inprobisazioaren inguruan antolatu dute programazio osoa. Hilaren 4an hasi zen jazz kontzertu batekin eta azaroaren 18an bukatuko da musika eta dantza inprobisatua biltzen dituen ikuskizun batekin.



Getxoko Komiki eta Manga Azokak

hamargarren edizioa beteko du aurtien. Azaroaren 25etik 27ra bitartean Areetako geltoki plazako karpan bilduko dira Euskal Herriko komiki zaleak, liburuak erosi, tailerretan parte hartu eta gustukoen dituzten manga pertsonaiez mozorrotuta *freaky*arena egiteko. Aur-

tengo berritasunen artean, musikaren protagonismoa, *Bulles Jazz Blues: komikia swing erritmoan* erakusketa paratuko baitute, Belgikako komikigileek jazz musika-reen izan zuten harremana erakusten duena.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

MIKEL GARCIA

Apokalipsia pizza eta garagardo artean

ZEIN UNETAN hasiko zinateke, heriotza usaineko bunker itogarrian giltzapetuta, erotzen? Zenbat iraungo zenuke, hasi arte biziraupenaren izenean albokoa zanpatzen, lagun-etsaia torturatzen, gizatasuna galtzen? Berdin dio ama prestu, suhiltzaile edo abokatu zaren zure egunerokoa, lurpeko bizilekuan sen primarioena gailentzen da, muturreko egoera barru-barruko izaerak egiten du eztanda. Eta beldurgarria da emaitza. Beldurgarria delako *The Divide*, agonikoa, hertsia. Baina lehenbizi girotu dezagun filma bere ingurumarian, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astean eskaini baitute pelikula, eta berezia, oso berezia da Donostian egiten den zinemaldi hau.

Izuak eta algarak bikote ezin hobia osatzen dute Beldurrezko Astea: hasieratik festa nagusitu da Antzoki Zaharrean, trufa eta dibertsioa. Poltsa bete litxarrereri eseri da butaka-kidea eta eskutan pizza bat duela (!) iritsi da atzekoa. Garagardo katxiak barra-barra aretoan. Armiarma-sarek eta eskeleto irudiz atondu dute antzokia, baina gutxi batzuk baino ez dira ausartu mozorrotuta, aurpegi margotuarekin edo katana bizkarrean dutela agertzera. Filmak iraun bitartean mugikorrak piztuta izatea ez dago debekatuta, ezta pantaila handiarekin eta gainerako ikusleekin interaktuatzea ere; areago, kasik nahitaezko baldintza da, iluntasunaren babesean eta pelikularen tentsioa arintzeko komentario umoretsuak ozen jaurtitzea eta hilketak bibaka hartzea –zenbat eta bortitzagoa heriotza, orduan eta handiagoa aztoramena–.

Aperitifa *Paths of Hate* film laburra izan da, bideojoko estetikadun basakeria odoltsua. Eta jarraian, Xavier Gens-en pelikula: bidaia eromen esperpentikoenera, gainbehera erabatekoa. Benetako ikara sortzen daki zuzendari frantziarrak, susto

efektisten beharrik gabe, tripak eta burmuinak barreiatuta erakutsi barik, baina odolari, biolentziari eta gizakion alderdi ankerrenari muzin egin gabe. Lanak ondo irudikatzen ditu pertsonaia bakoitza eta egoerak behartuta jasaten duten eraldaketa, onen eta gaiztoen, onaren eta gaizkiaren mugak lau-sotuz. Etorkizun ezezagunerantz jausten diren protagonisten bilakaera psikologiko eta fisikoak atezuan mantentzen du ikuslea, eta geroz eta handiagoa da estutasuna, zirrara.

Gustatu ez zaidana, gizatalde estatubatuarra bunkerrera eramaten duen arrazoa: iparkorearrena dirudien eraso nuklearra; besterik ez genuen behar potentzia anglosaxoiaren nazioarteko politika onetsi eta segurtasunaren paranoia areagotzeko. New York hiria irudi suntsitu-apokaliptikoaren aurrean, “hau da Zapaterok utzi digun herentzia” entzun da aretoan, barre artean. Txantxak, izua, eta erritmo biziko amaiera. Gorputzaldi arraroarekin eta sentsazio indartsuekin atera naiz antzokitik.



The Divide. Zuzendaria: Xavier Gens. Gidoilariak: Karl Mueller, Eron Sheean. Aktoreak: Lauren German, Michael Biehn, Milo Ventimiglia, Rosanna Arquette, Courtney B. Vance, Michael Eklund, Ivan Gonzales. 2011, AEB, Kanada, Alemania. 122 min.

ZIO

● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure!
artean
euskaraz

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BFA
DFB

Bizkaia
BIZIA

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

UTZI ALTXATU		PERTSONAIA- REN IZENA OHEETAKO BASTIDORE		HITANOA		DAUKA BAKOL- TZAREN JOKAMOLDE		ZENDU JUSTU, NEURRIZ		HANDITUZ JOAN PERTSONAIA- REN ABIZENA		EUROPAKO MONETA TXORRO
				IRUDITU INDIOAREN SINBOLOA								
ESTILO ARTISTIKO UNE SAMINA						ZUGARRA- MURDIKO AUZOA 500						
								JAUTIKETA EUSKAL FONEMA				
LETRA IZENA	MUSIKA NOTA (ALDE- RANTZIZ) HASERRE BIZIAN									JAINKO EGIPTOARRA UKALDI, KOLPE		
				TXARTELA, DOKUMEN- TUA								SUFIRMENDU, MIN
OINARRIZKO EDARIA KILOMETRO												
		GRAMOA NAFARROA- KO HERRIA						KONTRAKO- TASUN AURRIZKIA ADIO				
ATOMO KARGATU GIZA HARA- GIA JATEKO OHITURA				UMIL, XUME SILABA HINDUISTA		INTERJEK- ZIOA EGOKIA		TRONTZA ARRANTZA- TRESNA				
												LEHENA IRIDIOAREN SINBOLOA
NARRASTI IZENA ARRAZOIA, ZERGATIA						BIZKAIKO UDALERRIA BYTE						
				MOTZ						NAHASTURA TRINKO		

Kike Amonarizen umorea

Oilarra

Belgikan bildutako txistea da honako hau:

- Zergatik da oilarra Frantzia-
ren sinboloa?
- ?!?
- Hankak kakatzen izanda ere,
pozez algaraka eta oihuka hasteko
gai den ani-
malia baka-
rra delako!



Urpekontziak

Beste hau, berriz, Frantzian jaso da:

- Ba al dakizue zergatik ez dagoen urpekontzirik Belgikako armadan?
- ?!?
- "Ate irekien eguna" antolatutututelako!



Soluzioa

E												
H												
H	K	A	T	U								
D	I	K	A	Z	U							
D	U	O	L	A	Z	U						
H	I	R	O	L	I							
F	S	O	T	I	N	A						
L	J	A	S	O	T	I	N	A				
G	O	T	I	N	A							
S	A	M	I	S								
E	S	E										
U	R	A										
K	M	I	O	I	A	U	A	R	P	A	N	A
A	N	T	R	O	P	O	F	A	G	I	A	A
K	A	I	M	A	N	M	U	S	K	I	Z	
Z	I	O	A									



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Arroz transgenikotik gure odolak duen proteina bat atera daiteke

ODOLA HAINBAT ELEMENTUZ osaturik dago. Globulu gorriak, zuriak eta plaketak alde batetik, eta plasma bestetik. Azken horren %90 ura da eta gainerako %10 proteinekin, gatzekin, hormonekin eta substantzia lipoproteikoekin osatzen dute.

Proteina horietako batek, albuminak, odolaren hainbat osagai garraiatzeaz gain, zainetako presioa mantentzen du. Medikuntzan oso erabilia da,



WWW.AGRICORNER.COM

erredura handietan, gibeledu gaitzetan, hemorragietan, baita hainbat txerto ekoizteko ere. Erabilpen guzti horietarako erabiltzen den albumina gizakiaren odoletik ateratzen da eta beraz, zailtasun ugari ditu haren kudeaketak.

Proceedings of the National Academy of Sciences aldizkarian argitaratu denez, arroz

transgenikotik abiatuta gizakiaren albumina sortu daitekeela adierazi du talde txinatar batek. Arroz kilogramo batetik 2,75 gramo albumina atera daiteke, eta egindako probetan albumina hori eta gizakiarena baliokideak direla baieztatu da.



Adinekoen aurkako tratu txarrek gora egingo dutela dio OMEk

MUNDUKO HAINBAT LEKUTAN esan dute 7.000 milioigarren pertsona bertan jaioa dela. Guk ez dugu baten edo besteren alde egingo, noski. Lerro hauetan komentatu nahi duguna aipatutakoari lotutako beste zenbaki batzuk dira. Hots, 2050. urtean 2.000 milioi pertsona 70 urtetik gorakoak izango direla, eta horietatik %80 garapen bidean dauden herrietan biziko direla.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, adineko pertsonen artean %5 inguruk jasango dituzte tratu txar fisiko, psikologiko edo afektiboak. Gaur egun, hori gizarte aurreratuetan gertatzen da ia soilik, baina mende honen erdian esponentzialki haz daiteke arazoa, garapen bidean dauden herrien gizarteak prestatzen ez badira.



Pitoien bihotzaren tamaina bikoiztu egiten da jan ondoren

27 pitoi espezie bizi dira Indian, Asiaren hego-ekialdean, Afrikan eta Australian. Zientzialariek behatu dutenez, pitoiek harrapakin bat jaten dutenean euren bihotzaren tamaina ia bikoiztu egiten da. Datu hori oso garrantzitsua izan daiteke gizakiaren kardiopatiaren azterketetan.

<http://ttiki.com/32322> (Frantsesez)

Filmetan erretzen ikusteak erretzera bultzatzen du

Erresuma Batuko ikerlari talde baten arabera, nerabeek, zenbat eta pertsonaia erretzaile gehiago ikusi filmetan, orduan eta probabilitate handiagoa izango dute haiek ere erretzailerak izateko. Ondorio horretara iritsi dira 5.166 nerabe aztertu eta gero.

<http://ttiki.com/32324> (Gaztelaniaz)

Neutrinoa bere buruaren antipartikula ote den jakin nahian

Ettore Majorana fisikari italiarraren arabera, oso litekeena da neutrinoa bere buruaren antipartikula izatea. Hori hala den baieztatzeko, Canfrancoko (Espainia) lurrazpiko laborategian detektagailu bat eraiki nahi dute 2013tik aurrera.

<http://ttiki.com/32325> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Udaberri bi

ARTABURUAREN ZURIKINAK izen ugari badu pentsa artaburu berak zenbat ote duen... Eta artaburuari berari buruz ari naiz, benetakoari buruz, artoaren fruituari buruz, ez ni zeu bezalako artaburuez... Gure berri jakin nahi duenak babalorearen sinonimoekin osatuta hementxe argitaratutakora jo beza (ARGIA, 2.175. zbkia, 2009ko martxoaren 8a). Benetako artaburuak ere izen xebletik badu, hona polit bi: pikazkarri eta txiloma. Artaburuak geurean izan duen garrantzia dela eta, ehundik gora izen badituela dema egingo nuke. Bilduko al ditugu?

Artaburuak zuztarraren muturrean ihartzen diren sasoi honetan topatu dudana beste xeblekeria batekin nator gaur. Ilargialdi batean kanpoan ibili naiz, beste hemisferio batean. Udatik udazkenerako joaneko hemengo eguraldia ez dut bizi izan. Bero latzek jo omen dute geurea. Honek aurtengo klimaren itxuragabeko gorabeherak borobildu ditu. Neguan udaberria egin zuen, udaberrian uda, udan euri-jasak eta udazkenerako atarian udamin sargoria. Sasoi bat aurreratua letorkeen gisara igaro da aurtengoa. Horri egozten diot



JAKOBA ERREKONDO

kanpotik etorri eta topatu dudana xeblekeria. Arreta harrapatu didan bitxikeria loraldia izan da, udaberriko loraldia udazkenean. Sagarrondoak (*Malus x domestica*), udareondoak (*Pyrus communis*), gereziendoak (*Prunus avium*), aranondoak –bertakoak (*Prunus domestica*) eta japoniarrak (*Prunus cerasifera* “Pissardii”)–, sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*), erramua (*Laurus nobilis*), aligustre edo arbustu japoniarra (*Ligustrum ovalifolium*)... Ezin sinetsita ibili nintzen egunetan. Bati eta besteari galdezka: ze eguraldi arraio izan da bada? Eta denek erantzun bera: beroa!

Bero horri bueltaka, kanpotik bueltatuta hemen nintzen lehenengo egunean, urriaren 5ean, Donostian ateratako argazki batek piztu zidan, azkenean, argia. Argazkian ageri den azalea (*Rhododendron sp.*) izan zen kakoa. Udaberriko beroen ondoren, uztaileko euriteek negua ekarri zuten, tenperaturaren, hezetasunean eta ilunpean. Gero irailean beroa eta argia. Udaberria etorri zela uste izan zuten landareok. Uste ala egia, zer izan da? Argi dago, horientzat bi udaberriko urtea.



JAKOBA ERREKONDO



Baratzea balkoia


Ez da balkoiko baratzea, baratzea egiteko balkoia baizik. Modan da balkoi eta terrazetan baratzea antolatzea. Sosak aurreratua eta baratzeak hedatzen duen poza eskuera. Tomate, piper, letxuga, perrexil, zerba... Denetik ikusten da. Argazkiko honetan piperminak loreontzietan eta balkoi barruan kalamua. Egutera-eguteraan ederki etorritakoak, ez nolana hikoak. Baratzeak hedatzen duen poza era askotakoa izaten baita. Eta sos mordoa aurreratua... Gero eta kalamu gehiago ikusten da balkoietan, nonahi.



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Etorkinak New Yorken ongi hartuak zirenean



Ezkerrean, etorkin europarrak New Yorkera iristen, Askatasunaren Estatuaren parlean dutela. Eskuinean, etorkinak Ellis uhartean lehorreratzeko.

NEW YORK, 1886KO URRIAREN 28A. Frédéric-Auguste Bartholdi artista frantziarraren *Mundua argitzen duen askatasuna* izeneko kobrezko estatua erraldoia inauguratu zuten Hudson ibaiko uharte txiki batean. Handik aurrera, Libertasek, antzinako Erromako askatasunaren jainkosak egin zien harre-ra New Yorkera itsasontziz iristen ziren milaka eta milaka etorkinei.

Handik lau urtera, 1890ean, estatuaren uhartetik oso hurbil dagoen beste irlatxo bat, Ellis Island, ordura arte nagusiki jarduera militarretarako erabili zena, New Yorkeko aduana nagusi bilakatu zen. Horrenbestez, hirira itsasoz iritsitakoei Ellisen egiten zieten benetako harrera. Eta 1892tik 1954ra gutxi gorabehera hamabi milioi etorkin pasa ziren handik, gehienak europarrak. Horietatik gutxi batzuek amets amerikarra betetzea ere lortuko zuten, hala nola Isaac Asimov idazle eta zientzialariak, Frank Capra zinema zuzendariak, Cary Grant, Bela Lugosi, Claudette Colbert eta Rodolfo Valen-

tino aktoreek edo Lucky Luciano gangsterrak.

Elliseko mugan etorkinei osasun azterketa egiten zieten eta haien legezko egoera egiaztatzen zuten. Gehienek, %98k, AEBetara sartzea lortu zuten. Deportatutako %2 hori nagusiki “poligamoe, kriminalek, anarkistek eta gaixotasun infekzio-soak zituztenek” osatzen zuten. Etorkinak ongi hartuak zirela, alegia. AEB herrialde gazte eta dinamikoa zen, eta gosetik, gerratik nahiz jazarpenetik ihesi joaten ziren europarrek hazten ari zen ekonomia eskulanez elikatzen zuten.

1954an Elliseko mugari eustekak ez zuen zentzurik, ordurako immigrazio politika aldatua baitzen, eta bertan behera utzi zuten. 1965ean Askatasunaren Estatuaren Monumentu Nazionalaren parte izendatu zuten. Eta 125 urte bete berri dituen Askatasunaren Estatuak turista bisa agortu baino lehen AEBetatik alde egitera derrigortuta dauden atzeritarrei egiten die ongietorria.




Arrastoak

Poeren museo-etxea ixteko arriskuan da

EDGAR ALLAN POE idazleak hainbat urtetan bizitoki izan zuen etxe xumea, egun museoa dena, diru-laguntzarik gabe uztea erabaki dute, Baltimoreko (AEB) instituzioak egiten ari diren murrizketa ekonomikoak direla eta. Museoaren urteko aurrekontua 85.000

dolarrekoa da soilik, baina idazlearen zale amorratuaren kultu-guneak ez du nahikoa bisitaririk jasotzen, hiriko ibilbide turistikoetatik kanpo dagoelako. Iristen hasi diren borondatezko ekarpen ekonomikoak nahikoak ez badira, ateak itxiko ditu.



CORINNE MAY BOTZ

Jose Ramon Beloki

«Oraindik ez da aski preziatu AHTrekin lortutakoa»

Legazpi, 1947. Hedabideetan eta administrazio politiko lanetan aritua. Espainiako Kongresuko diputatu izan da azken bi legealdietan EAJren izenean. Ez da berriz aurkeztuko: “Erabaki bat hartu dut oraingoz, Madrilera ez joatea” esan digu, politikan segitzearen asmoz galdeturik.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Ez zara Espainiako Kongresurako aurkezten berriz ere. Arrazoa?

Bizitza profesionalean ez dut sekula lan berean zortzi urteko epea gainditu. Gipuzkoako Diputazioan zortzi urtez egon nintzen, gabinete buru lehenik eta gero diputatu. “Orain, bizitza laboralean amaitzeaz zaudela ez duzu lege hori beteko?” galdetu diot nire buruari.


Badakizu, beti espekulatzen da...

Ez dago besterik. Hautagai izateko alderdiak “prest zaude aurkezteko?” galdetzen dizu. Nire kasuan, eskualdeko buru Joseba Egibarrek deitu eta “uzteko erabakia hartuta daukat” esan nion. Harritu zen, bestela pentsatzen baitzuen. Azaldu nizkion nire arrazoiak. Arrazoi absoluturik ez dago noski, edo gutxitan.

Zein da Madrilgo esperientziaren balantzea?

Pertsonalki oso aberasgarria izan da. Kontestuz aldatzea oso aberasgarria da nornahirentzat. Kontestuz aldatu eta lan berrietara joaten zarenean aberasten zara. Praktikan ikusi dut hori. Ofizio berria ikasi behar izan nuen, ez bainintzen parlamentaria ordurarte izan. Politikaren ofizioa ezagutzen nuen, Gipuzkoako Diputazioan, baina ez hori zehazki. Madril oso gutxi eza-
gutzen dut, eta Madrilgo politika are gutxiago orduko hartan. Zortzi urte hauetan politika zer den ezagutu dut, zer jende dagoen politikan, jendearen arteko harremanak nolakoak diren. Ofizioa ikasi dut, ez parlamentari bezala soilik, politika barrutik ezagutu ahal izan dut, Kongresuaren barruko eraketa zehazkiago zein den. Joan nintzenean baino askoz gehiago dakit.

Kazetari aritu ondoren politikari bihurtu zinen. Nola ikusten dituzu hedabideak politikariaren



ikuspuntutik, nola politika kazetari senetik?

Joko bat egiten dut horretan, kontentzimenduz egin ere, eta da: politikarien artean komunikabideak defendatu ditut, eta komunikabideen artean politikariak. Biak ala biak dira beharrezkoak. Askotan, komunikabide zenbaitek “politika nik egingo dut” eta politikari batzuek “komunikabideak nik maneiatzen ditut” nahi izaten dute. Nik ez bata ez bestea defendatu dut. Oreka behar da, eta hori ez dago une onean. Uneon oreka une txarra dagoenez, bai politikariak bai komunikabideak oso irudi txarra hartzen ari dira. Balorazioetan oso baxu dabilta biak, bakoitzak bestearena behar adina ez duelako errespetatzen.

Badugu zer ikasia ofizio hauetan ari garenek.

Bai. Politikariak, ez dut zalantzarik esateko, komunikazioaren auzi hau ez du behar bezala lantzen. Iruditzen zaio bestea zor zaiola. Alegia: “Nik edozein gauza esaten dut nahi dudana bezala, eta nolana, eta kazetariak jakin behar du titular ona egiten. Areago, neuk idatziko nukeen testua baino hobeto idatzi behar du kazetariak”. Ez, ez, hori politikariaren egitekoa da, komunikazioa bere egitekoa da. Komunikabideak egingo du berea. Eta bestalde, noski, komunikabideei esan behar zaie, ez jartzeko politikarien ahotan eurek esan nahi dutena. Ez idatzi informaziorik gabe eta aurreiritziekin, alegia.

Bi legealdi eman dituzu Kongresuan. Egiguzu zortzi urteko balantzea.



Tolosako Babarruna

Hoberenak soilik aukeratzen ditugu

943 650 253
www.tolosakobabarruna.com



“Orain arte ezker abertzalearentzat inkoherentea Madrilerako joatea zen. Orain, zer nahi dute? Burua zuritu. Ikusiko dugu zer den koherente edo inkoherentea izatea”.

Zapatero presidentek bizi izan duen aldi bera ezagutu dut. Madrilerako iritsi eta inpresio hau hartu nuen: presidentea zela presidentea izatea pentsatzen ez zuena [Zapatero], aldiz, oposizioan zegoena [Rajoy], burutik sekula ez zitzaion pasa ez zela presidentea izango. Horrek desoreka sortu zuen. Beraz, lehenengo lau urteak hori egonkortzeko behar izan ziren, finkatzeko, bien aldetatik. Zapatero aingerutxo bat bezala heldu zen eta errealtateak pixkanaka zera erakutsi zion: “Aizu, presidentea zara”. Presidentea zara, kontestu batean, politikaren indar harremanen munduan. Izan ere, batzuetan, bazirudien mundu berri bat inbentatzera zihoala. Adibidez, Espainiako Ejertzitza Iraketo gerratik atera zuenean. Jende askok “honek dena konponduko du” esaten zuen. Baina agintea, agintea da. Zure agintea ez dago mundu honetatik aparte. Bera ere errealtateak etorri zen. Bigarren agintaldian, krisia etorri zen, ametsetan inondik ere pentsatu ez zuena, eta oro har, inork ere ez. Bere programan langabezia desagertuko zela idatzita zegoen, pentsa.

PP, aldiz, nola ikusi duzu?

Aznar joan berria zen, eta guretzat, adibidez, ematen zuen mundua aldatzera zihoala. Rajoy iritsi zen, alderdian arazo pila zeukan, ikaragarriak. Beraz, bere mundua gober-

natzen hasi behar izan zuen, oposizio modu bat aurkitzen. Nik ohore bat daukat: Zapaterok galdu zuen lehen bozketa Kongresuan, neuk presentatutako mozio batengatik. Mozioa AHTri buruzkoa zen. Guk, IU, CiU eta abarrek boto horiek bagenituen, eta lehenengo aldiz lortu genuen PPk botoa guri ematea. Orduan, PP gehi besteok irabazi genion Zapaterori. Hau da, PP pixkanaka etorri da joko parlamentario normalizatura, hain normalizatua, ulertzeko diot, zortzi urteren ondoren berak gobernatuko duela berriz ere.

“Gauza bat da bake prozesua, eta beste bat, kontestu horretan errealtate sozio-politiko ekonomikoak exijitzen digun berregituratze sendoa Estatuko administrazioan eta ekonomian”

Artean, zein izan da EAJren esperimentzia edota ekarpena?

Lehen legealdian egokitzea oso gogorra izan zen. Akordatu Ibarretxe lehendakaria Kongresura joan zela, eta zer-nolako erantzuna eman zioten. Aznarren agintaldia pasa

arren, PSOEek jarrera onik ere ez zuela ohartu ginen. Ondoren etorri zen EAJ Eusko Jaurlaritzatik botatzea, PSOEek eta PPk bat eginda. Gu haserre ginen noski, baina talde bezala lortu genuen berregokitzea, gure egoera finkatzea. Eta hasi ginen esan bezala, PPrekin bozketa bat irabazten eta ezker-eskuin mugitzen, gurea lortzeko.

PSOEekin akordioak lortu dituzue, krisi ekonomikoak "behartuta" nolabait.

Bai, baina gurekin bezala, akordioak beste batzuekin egin zitzakeen. Berak boto batzuk behar zituen, eta jaso zitzakeen CiUrenak edota ERCrenak. Baina geuk lortu dugu hori, talde parlamentario baten abilitatea da hori. Zu baldintzatzen zaituen kontestuan zure rola aurkitzea.

Horrek ekarri zuen, esaterako, Kontzertu Ekonomikoaren blindatzea.

Bai, besteak beste. Niretzat oraindik ez da aski preziatu AHTrekin lortutakoa. Zapatorekin moldatze berezi batera iritsi ginen. Ez da bakarrik AHT egingo duzun edo ez, baizik eta Eusko Jaurlaritzari AHTren parte handia egiten uztea. AHT Kontzertu Ekonomikoaren xedapen baten arabera egingo du Gobernuak. Hori egin izan ez balitz, nik zalantza handiak ditut Gipuzkoako AHT egingo ote zen. Egingo zen Burgostik Bilbora, Gasteizen barrena, baina Gipuzkoako adarra... Gainera, hori gure eskumenaren erabilera bermatzea da, Kontzertu Ekonomikoa ez baita gauza erretorikoa.

AHT aipatua: Gipuzkoan sektore asko kontra dauka.

Bai. Baina hori beste debate bat da.

Baina, zuk nola ikusten duzu auzi hori?

Nik ikusten dut, gizarte guztietan izan direla eta badaudela abiadura handiko trenaren kontrakoak beti. Kongresuan ikusi dut, Kataluniako edota nornahiko guztiek "hori nire etxean egin dezaten azkar" eskatzen. Nik ez nuen guztiek eskatzen zuten hori buruan, aitzitik, AHT nahi ez izateak nire buruarengan gehiago pentsarazi dit beste ezerk baino. Izan ere, Kongresuko eztabaidan Mediterraneoko edo Atlantikoko korridorea aukeratzekoa zen. Europa eta Estatua konektatu beharra dago Pirinioen alde bate-tik. Beti hala izan da. Ezin baituzu

"Nik eginahalak egin nituen Bilduri ez uzteko Gipuzkoako Diputazioa. Nire jarrera pertsonala da, mila motibo tarteko, gipuzkoarrentzat interesgarria zelako beste gobernu bat izatea"

mendi puntetatik korridore zabala egin, ertzetatik baizik. *Norteko ferrokarrila* ere hala egin zen. Beraz, zer zentzu dauka beti konexio bide izan direnak AHTren konexio bidea ez izatea?

ETAren osteko aroa heldu da. Horrek Estatuaren marko sozio-politikoaren birmoldatze beharra ekarriko al du?


Bai, baina ez bake prozesuarengatik, bestela, behar delako baizik. Ez dezagun pentsa, gauzak atzekoz aurrera jarrita konpontzen direnik. Aspalditik daukagu hoti aztertua EAJn, —eta PP eta PSOEko diputatuekin ere bai— eta nik beti defendatu dut birmoldaketa ezinbestekoa dela, gusta ala ez gusta. Kontua da nola egiten den, egin baitaiteke zu gabe, edo zure iritzarekin kontra edo zure iritziarekin kontatuz eta adostutako kontestu batean. Gauza bat da bake prozesua, eta beste bat, kontestu horretan errealitate sozio-politiko ekonomikoak exijitzen digun berregituratze sendoa Estatuko administrazioan eta ekonomian. Hori da datorren legealdiko zeregina.

Amaiur Espainiako Gorteetan izango da. Iñaki Antiguadad hautagaiak neurrian parte hartuko dutela adierazi digu orriotan. Areago, euren kasuan inkoherentzia litzatekeela orain, eguneroko politikan normaltasunez jardutea...

Inkoherentzia handiagorik egiten ez badute, ongi doaz. Nik apustu egiten dizut inkoherentzia handiak egingo dituztela, han eta hemen. Ez dakit zer den neurrian parte-hartzea. Astelehenetan bai, eta asteazkenean ez, goizean bai, arratsaldean ez.

(...)

Kontua da parlamentari izan edo ez, lan egin edo ez. Ez dago besterik. Beste gauza bat da parlamentari izan eta lan ez egin, lan mugatua egin soldata kobratuz. Bakoitzak



“Ikusiko dugu azaroaren 20an ERCrekin zer gertatzen den”

EAJren hegemonia zalantzan dago.

Aizu, guk hegemonia prekariora eduki dugu, adibidez, badirudi EAJ egon dela Gipuzkoako Diputazioan bakarrik gobernatzeko. Hegemonia Bilduk daukana da. Gure hegemonia neurri batekoa izan da, gizartearen erdian izan gara, eta une diferenteetan batzuekin eta besteekin gobernatu dugu. Orain, arau demokratikoetan kokatzen ari gara guztiok. Zer gertatuko den ondoren? Ez dakit.

(...)

Nik atentzio handiz segitu dut Katalunian gertatua. Duela zortzi urte, Kongresura iristean, ERCren gorakada izugarria izan zen, ETArekin izandako tratua tarteko. ERC independentista zen, bere erara, gaurko Bilduren erara, nolabait, konparagarriak dira biak. Ikusiko dugu azaroaren 20an ERCrekin zer gertatzen den. Noski, gobernatzeko ez duzunean, ametsak eta asmoak handiak dira, baina etorri eguneroko politikara eta asmatu ezazu ametsa errealitate bihurtzen. Hori da ikusteko dagoena. Baliteke Bilduk asmatzea, eta EAJk ez asmatzea. Tira, nire aurreikuspena alderantzizkoa da. Baina, gertatzen dena gertatzen dela ere, bakoitzak haxe jakin behar du: jendea ez dela zure atzetik etorriko, zuk joan behar duzula haren atzetik. Alderdi guztiek ikasi behar dute eguneroko jendearen borondatea bereganatu behar dutela, eta jendearen borondatea egunez egun aldatuz doala, borondateak aldakorrak direla. Hori ez dakienak amets egingo du eta azkenik munduak albo-ratuko du.

Abertzaleen arteko akordioa nola ikusten duzu?

Logikoa ikusten dut. PSOEek eta PPK badute akordio bat. Madrilen hori bizi izan dut, zuk zerbaitekin ukitzen duzu eta haiekin ados jartzen dira zuri ezetz esateko. Zergatik? Gauzak ez daudelako normalizatuak, eta abertzaleok egoera hori normalizatu beharko genuke. Eta hori da egoera, eta ez da ametsik egin behar ere. Begira PP eta PSOE nola dabilten Madrilen. Gauza hauek bere errealitatean kokatu behar dira. Alegia, abertzaleok garbi eduki behar dugu Euskadi dela euskaldunon aberria? Hori emandakotzat eman behar da, ezta? Subiranista denak garela, alegia. Gero, hori nola gorpuzten den? Mundua ez da norberak buruan duena, mundua kanpoan dagoen hori da.



ikusiko behar du zer egin nahi duen. Badago gauzak justifikatzeko modu asko, baina horrek ez nau kezkatzen, haiek jakingo dute.

Alegia, eurek diotenez, hainbat lege ez dira aprobatu gabe geratuko haiek Madrilen ez daudelako adibidez.

Hori baino ez badute egiten...

Ezker zara.

Izan ere, orain arte inkoherentea Madrilerara joatea zen. Orain, zer nahi dute? Burua zuritu. Ikusiko dugu zer den koherente edo inkoherentea izatea.

Zalantzati zaude. Bilduren efektua izan da lehenik, orain Amaiur dator.

Gauza bat gaizki egin da: gauza asko lotu zaie behar ez ziren gauzei, zenbat gauza baldintzatu dira... Zu legalizatuko zaitugu, baldin eta... Hor daude lege antiterroristaren akordioa edo espetxe politika. Hau da, zuk gizarteratze lana egin behar

duzu ETA egon ala ez. Batzuei gusatzeko zaie dena nahasian eramatea, niri ez. Nik ez dut ETAk indarkeria utzi behar izatea ni demokratikoki izateko, ETAk tiro eman dionari nire babesa emateko ez dut horren beharrik izan. Demokraziak bere legeak ditu eta zuk ezin dituzu baldintzatu. Badatoz gure esparrura, politikara, ikusiko dugu duela lau —edo zortzi edo hamabi— urte defendatzen zutena defendatzen segitzen duten edo ez.

Baina, Bildu, adibidez, ez da soilik ezker abertzalea.

Nik esan ohi dut alderdirik gabeko jende baten bilgunea dela batetik, eta bestetik jenderik gabeko alderdi bat dela.

Dena dela, EAJk jipoia hartu zuen Bilduren aldean Gipuzkoako hauteskundeetan, EAJren porrota izan zen nolabait.

Jipoia hauteskundeetan emaitzen

ondorengo kudeaketan izan zen, ez hainbeste hauteskundeetan. Izan ere, demokrazian botoa zuk kudeatu behar duzu. Nire alderdiak tratua egin izan balu PSOErekin edo PPrekin eta Bildu kendu izan balu, hori ere demokratikoa izango zen. Halere, ez dakit denak ados egongo ziratekeen horretan. Gestio demokratikoa egin da eta egoera horretara eraman gaitu, ados. EAJren emaitza txarrak baino botoen kudeaketak ez dela behar zuena izan uste dut, eta “porrot” antzeko batera eraman duela zuk diozun bezala. Nik horrela sentitzen dut...

Horretan ez duzu bat egin alderdiarekin.

Nik eginahalak egin nituen Bilduri ez uzteko Gipuzkoako Diputazioa. Nire jarrera pertsonala da, mila motibo tarteko, gipuzkoarrentzat interesgarria zelako beste gobernu bat izatea. ■





Zergatik ez lehenago? (nik nioen moduan)

Julen Zabalza

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Azkeneko egunotan esan diren gauzen artean, behin baino gehiagotan irakurri ahal izan dut arrangura moduko bat, ea zergatik ETAk ez duen eman pausu hau lehenago. Bi norabide ditu. Batzuek diote orain emandako pausua aspaldi eskatu zutela eurek, baina inork ez ziela jaramonik egin, eta bai aitzitik, kritika mardulak ekarri. Eta besteek diote, ezer ez lortzeko, orain urte asko ere erretira zitezkeela, eta ea zer logika duen erretiratzearen truke Arjelen edo Loiolan zeozer eskuratu ahal izatea eta ezetz esatea, eta orain ezer lortu gabe alde egitea.

Iritzi horietan, iruditu zait ezagutza txikia zegoela bai politikari atxikitu behar zaion instrumentalasunaz, eta baita Ezker Abertzalearen proposamenaz ere. Izan ere, proposamen berrira heltzeko, eta beste faktore batzuren eragina ukatu gabe, Ezker Abertzaleak historikoki landu izan dituen bi estrategien mugak frogatu behar izan ditu, eta horrek gogoeta sakon eta erabakigarria ekarri du.

Bi estrategia historiko horietako lehena Nazio Frontea izan da, abertzaleek, bat eginda eta indarra harturik, estatuen aurrean (Madrilen aurrean hasiera batez) erabiltzeko. Bigarren estrategia Negoziazioarena izan da, gehienbat ETAre indarra, zuzenean, Madrilen aurrean erabiltzeko. Bi bideok erabili ditu Ezker Abertzaleak 1976tik hona, eta bakoitzak bi aukera izan ditu tarte honetan. Nazio frontearen lehen gauzapena Txibertako elkarrizketak izan ziren; eta Negoziazioaren lehen gauzapena, bestetik, Arjelekoa, biak ezerezean geratu zirenak.

Hurrengo bi saioak ere ezerezean geratu ziren, garrantzi handiagokoak izan arren, baina Ezker Abertzalearen oraingo gogoetan guztiz eragin dute. Alde batetik, egoerak eta abertzaletasuna nazio eraikuntzaren parametroetan ulertzen hasteak, nazio frontearen bigarren saio bat ekarri zuten, Lizarra-Garazikoa. Orduko porrotetik, Ezker Abertzaleak ikasi zuen, borroka armatua presente egonda, ezina izango zitzaiola halako fronterik gauzatzeari, haren kontrako presioa handiegia baitzen. Berritoki itzuli zen estatuarekin negoziatzeko bidera, bitartean aukera berriak sortu baitziren Irlandako esperientziaren ondoren eta nazioarteko inplikazio handiagoa ikusita. Hala ere, Loiolako saioak zeozer irakatsi bazion ezker abertzaleari, hura izan zen zer berme txikia zegoen hitzartutakoa gauzatzeko, Espainiarekin ez baitzegoen inola ere fidatzerik.

Bi ibilbideak jorratuta, eta asmoak gauzatu ezinda, Ezker Abertzalea bestelako bideen bila abiatu zen, gogoeta sakona eginda. Ibilbide bietako porroten irakaspenen ondorioa izan dira hartu diren bi erabaki funtsezkoak: borroka armatuaren zikloari amaiera ematea; eta alde biko negoziazio eskema klasikoari ere ezetz esatea. Lehena ezin izango da berriro arrazoi bihurtu indarrak ez batzeko; bigarrenak kendu egiten dio estatuari negoziazioaren giltza. Horren aurrean, fronte zabalaren bidea proposatzen omen da orain, baina indar metaketa benetan handia izan arte, ez omen da gobernuaren aurrean inolako mugimendurik egingo.



“Lizarra-Garaziko porrotetik Ezker Abertzaleak ikasi zuen, borroka armatua presente egonda, ezina izango zitzaiola halako fronterik gauzatzeari, haren kontrako presioa handiegia baitzen”



Txaro Idiakez, telebistarako itzultzailea

«Luparekin begiratzen da euskarazko bertsioa»

Ezkio-Itsasoko itzultzaileak 25 urte daramatza ETBrako eta zinemarako ingelesetik –noizbehinka frantsesetik– euskarara itzultzen. Etxeko txikienak ohituta daude marrazkiak euskaraz ikustera, baina horri segida emateko ETB1ek nerabeentzako eskaintza duina falta duela uste du Idiakezek.

MIKEL GARCIA

Marrazki bizidunak salbu, itzulitako kanpo-produkzio gutxi ikusten da ETBn, garai batekin alderatuta.

ETBrako itzulpengintzan, hiru etxe zeuden hasieran: Irusoin, K2000 eta Edertrack. Lana gutxitzen joan ahala, Irusoin eta Edertrack batuta Mixer sortu zuten eta K2000 ekoizpenean espezializatu zen. 40 bat itzultzaile izatetik 10 izatera pasa gara eta finkoak lauzpabost baino ez. Izan ere, kanpo-ekoizpena –atzerriko hizkuntzetatik itzulitako ikus-entzunezkoak– %90 murriztu da: duela hogeitun mila ordutik gora ziren urtean, 2005ean 500 ordura jaitsi zen eta aurtun ez da 100era iristen. Ez zaie errentagarri aterako, nonbait. Eta eduki aldetik, puntako film, telesail eta dokumentalak eskaintzen ziren lehen, oso lan txukunak. Orain marrazkiak itzultzen dira batik bat, eta telesailak eta dokumentalak apenas. Garai batean, askoz ere apustu handiagoa egiten zen kalitate oneko kanpo-ekoizpena ekartzearen alde. Ez dakidana da ikusiko ote zen, hasieran nire belaunaldiko jendea eta zaharragoei arraro egiten baitzitzaiei: bakoitza norberaren euskalkira ohituta, euskara batuan deigarri egiten zitzaien. Adibidez, beltz bat euskaraz ikusteak harritzen zituen.

Telebistaren eragina hain handia izanda, erabilitako hizkuntzak ere eragingo du.

Bai, bereziki umeengan, entzundakoa errepikatzeak ohitura baitaude eta dena geratzen zaie buruan, dena



“Ez badiezu ematen marrazki bizidunei *Betizuk* zeukan moduko balio erantsirik, beste hizkuntzetakoak hautatu ditzakete umeek”.

xurgatzen dute. Pelikulekin ez bezala –lotuago baikaude gidoiari– marrazkietan saiatzen gara hitz jokoak sartzan, hizkera aberatsa erabiltzen... askatasun handiagoa daukagulako. Esango nuke, askotan marrazkiak, japoniarrak eta –guri ingelesez iristen zaizkigu–, hobetu egiten ditugula. Nik behintzat garrantzi handia ematen diot, umetan ikasten delako hizkuntza. Dena den, lehen, *Betizuk* eta halakoekin mugimendu handia ematen zioten haurren programazioari, galak eta guzti egiten zituzten herriz herri, baina orain umeek sekulako eskaintza daukate kate guztietan, eta ez badiezu balio erantsirik ematen euskarazko marrazki bizidunei, beste kateetakoak hautatu ditzakete.

Hastapenetan zurrunagoa zen ETBko euskara, urteekin malgutu egin dituzue itzulpenak?

Bai, eskarmentuak erakutsi digu euskara erraza, ulerkorra eta hurbila dela gakoa. Ordukoa ere euskara zuzena zen, baina adierazkortasun aldetik gogorragoa. Bikoiztaileek beraiek ere, gure itzulpenei ahotsa jartzen dietenak, ikasi dute esperientziarekin.

Zein irizpide jarraitzen duzue?

Euskara batuan egiten dugu, nahiz eta inoiz sartzan dugun berezitasunen bat. Harry Potter-en filmetan, Iñaki Mendigurenek liburua itzuli zuenean, bizkaieraz hitz egiten jarri zuen pertsonaietako bat eta filmean ere hala mantendu dut, baina kasu puntualak dira. Gainera kalitate kontrol zorrotza daukagu, itzulpena, estiloa, egokitapena... neurtzeko. Zuzentzailea ere badaukagu eta hari ere kontrola egiten diote ondoren, baita bikoiztaileari ere. Kuriosoa da guk perfektu idatzi behar dugula,

luparekin begiratzen da euskarazko bertsioa, baina ingelesez laburduraz beteta idazten dute [jatorrizko idatzizkoa ere izaten dute lagungarri] eta gaztelaniazko itzulpenean nahi dutena egiten dute, akats handiak ikusita nago ni. Euskarazkoan zorrotzagoak dira, jendeak telebista euskaraz ez ikustearen arrazoiak egongo balitz bezala itzulpenean, baina nire ustez arrazoiak ohituraren datza.

Bai, jende batek oraindik dio arrotz egiten zaiola euskaraz pelikula bat ikustea, baina marrazki bizidunekin ohituta gaude...

Umeek naturaltasunez ikusten dituzte marrazkiak. Areago, Shin Chan, Son Goku eta halakoak lehenengo euskaraz ikusi dituztenez, arraro egiten zaie gero erdarazkoa. Pelikula arrakastatsuak erdaraz ikusi ohi dituzte lehenago, horregatik bultzatu behar da marrazki bizidunenez gain gainerako ekoizpenak ere euskaraz gehiago eta lehenago ematea. Haurrak txikitatik marrazkiak euskaraz naturaltasun guztiz ikusten hasten dira eta horrek segida balu, naturaltasunez hartuko lukete lekukoa egungo eta etorkizuneko belaunaldi gazteek, baina ez dago nerabeentzako telesailik-eta euskaraz, eta erdarara pasatzen dira. Apustu handiagoa egin behar du telebistak adin horiei kalitate oneko saio interesgarriak eskaintzeko.

Halaber, ez dezagun ahaztu, atzean aurreiritziak daude: badirudi euskara gauza zaila dela, ahalegina eskatuko balu bezala zerbait euskaraz ikusteak. Eta bestalde, zergatik ikusten da Euskal Telebista gehien Gipuzkoan? Euskara batutik gertuen dagoena gipuzkera delako, eta gu behartuta gaude euskara batuan egitera.

Zeintzuk dira itzulpenaren zailtasun nagusiak?

Egokitzapena, ingelesa hizkuntza labur-laburra delako euskararen aldean eta frantsesa ere laburragoa da. Mirariak egin behar ditugu koadratzeko, luze-laburrean dena sartzeko batetik eta joskera desberdina etenetan-eta sumatu ez dadin. Urteen poderioz ikasitako trikimailuak erabili behar. Erdaraz adibidez sekulako tranpak egiten dituzte, dena kabitzeke nahi adina hitz sartu eta gero bikoiztaileek ziztu bizian irakurri behar: ingelesez lasai-lasai diotena izugarritzko abiaduran esaten da gaztelaniaz, jatorrizko kutsua galduz.

Erregistro aldetik, gazteen *slang* edo jerga da zailena. Euskaraz ez dago beti baliokide finkaturik, herri bakoitzean gure esamoldeak ditugulako, edo “*tío*” eta halakoetara asko jotzen delako. Ari badira film guztian *fuck* gora eta *fuck* beheara, giro hori islatu behar duzu, “ostia”, “kabroia”, “puta”, “ze kristo”...

jarriz, ezin zara ibili “arraioa!” gisako epeleriekin. Kasu horietarako zerrenda bat daukagu, baina oso murritza. Itzultzen dugun %99a ingelestik itzulua da, gehiena amerikarra, laburduraz betea, kontrakzioz, siglaz, ikaragarri malgua eta etengabe aldatzen doana, hango erreferentzia eta aipamenekin. Erdarakadekin ere kontuz ibili behar da, gaztelanian adibidez ari da ingelesa sartzen. “*I’m sure 100%*” itzultzeko “*Estoy seguro al 100%*” diote, baina hori gaztelaniaz ez da behin ere esan, eta euskaraz ere “%100ean ziur nago” jartzeari buruzko eztabaida izan dugu, baina hemen “erabat, guztiz ziur”, halakoak erabili izan ditugu

beti. Kontrol faseetan dauden pertsonak zein joera duten –itzulpenak jatorrizko bertsioari ahalik eta leialen lotzea ala euskara garbia lehenestea–, horren araberako bertsioak entzuten ditugu telebistan.

Zuen itzulpenei ahotza jartzen dietenen interpretazioak asko alda dezake emaitza?

Guk euskara batuan idatzi arren, espero duguna da gero bikoiztaileak bere ahoskera eta adierazkortasuna ematea, aditza oso-osorik irakurri beharrean naturaltasunez leitzea, bere filotrik pasa eta erregistroekin janztea eta aberastea... Bikoiztaileekin dagoen arazoa da lanik ez dagoenez oso gutxi direla eta sinesgarritasuna galtzen du ahots bera marrazki bizidunetan, iragarkietan, pelikuletan, telesailetan... entzuteak. Era berean, erregistro aukerak murriztu egiten dira, bakoitzak bere hizkera eta kutsua ematen diolako, bakoitzak gure ajeak ditugu, eta aniztasunik ez badago ez bikoizketan ezta itzultzaileon artean ere, emaitza eskasagoa da.

Bikoizketa ala azpitudunak?

Marrazki bizidunetan bikoizketaren alde egingo nuke. Filmen kasuan, euskal telebistan saiakerak egin ziren garai batean, nik neuk *Manhattan* azpitudunatu nuen, baina gauza onak

eta txarrak dituzte bi ereduak: bikoizketan berezko ahotza, esamolde originala galtzen da, eta azpitudunetan, arreta banatu egin behar duzu irudiaren eta irakurketaren artean. Bide batez, ez da egia Espainiako Estatuan baino ez dela bikoizten: biztanle gehien dauzkaten herrialdeetan, Alemania, Britainia Handia, Italia, Frantzia eta Espainian, bikoiztu egiten da. ■



Babeslea: EMUN



HIZKUNTZA KUDEAKETA ERAGINKORRA LORTZEKO BIDERIK ZUZENENA

- Hizkuntza aholkularitza eta euskara planak
- Euskara prestakuntzako modulu bereziak
- Itzulpen zerbitzua

www.emun.com
www.lantalana.com



Gazteak sare sozialetan

ELKARLANEAN aritu dira Soziolinguistika Klusterra eta Kultur Kabia-Topagunea *Nerabeak, Interneteko Sare Sozialak eta Euskara* egitasmoan. Belaunaldi gazteak bete-betean dabilta sare sozialetan eta erabilera hori baliatu nahi izan dute hainbat alderdi aztertzeko. Bi helburu lortu nahi izan dituzte ekimen honekin: batetik, aisialdi programetan sare sozialen bidez nerabeen euskararen erabileran eragitea, eta bestetik, hizkuntza-portaeratan sare sozialen bidez eragiteko esku-hartzeen baliagarritasuna aztertzea. Ondokoak dira ateratako ondorioetako batzuk:

- Aztertutako nerabeek sare sozia-

len bitartez dituzten euren arteko harreman informaletan, orokorrean, oso euskara gutxi erabiltzen dute. Harremanen gehiengo handia gaztelaniaz izaten da.

- Gaztelania darabiltenean, hizkera informala eta arauetatik kanpokoa da nagusi. Euskara erabiltzen den kasuetan, berriz, euskara batua eta ahalik eta zuzenena erabiltzen dute.

- *Harrapazank* programaren profilekin eta zirikatzailearen profilekin izandako harremanak euskaraz izan dira. Inoiz esplizituki aipatu gabe, zirikatzaileak lortu du berekiko harremanetako hizkuntzatza euskara finkatzea eta nerabeek berarekin duten praktika bal-

dintzatzea. Kasu hauetan, nerabeek ez dute inolako komunikazio arazorik izan, hizkuntza-gaitasunari dagokionez. Akats ortografiko ugari sumatu dira euskaraz idaztean.

- Euskararen erabilera, zoriontzeko, eskerrak emateko, agurtzeko eta maitasunezko mezuak adierazteko xedea duten mezuetan eman da gehienbat. Sarritan euskarazko formula estandarrak erabili dira horretarako (eskerrik asko, maite zaitut, zorionak...). Horrek euskararen erabilerak kasu hauetan funtzio simbolikoa betetzen duela pentsatzera garamatza.

Soziolinguistika Klusterrak webgunean txosten osoa dauka: www.soziolinguistika.org



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

G-20a "merkatuen" zerbitzura

Grezia eta Cannes –azkeneko hau G-20aren azken bilkuraren egoitza–, protagonista izan dira ekonomiaren arloan joan den astean. Grezia, "merkatuek" (finantza erakundeak eta nazioarteko inbertitzaileak) gobernuei egiten dieten xantaiaren adibidea izan da, herritarrentzako kalteak eraginez. Greziako herritarrak basati zigortzen ari dira, soldadak eta pentsioak izoztuz, lan baldintzak kaskartuz, eta azken batean, ongizate estatua deseginez. Zorra kitatuko duela bermatzeko, "merkatuek", esklabo dituzten Alemania eta Frantziako gobernuekin batera, xantaia baino ez diote egin Greziari, murritzeta sozial gehiago eskatuz. Eta xantaia egin dute, eragozteko greziarrek erreferendum bidez iritzia eman dezaten neurri drakoniarrak. Hori da "merkatuek" eta bere gobernuek inposatu nahi diguten "demokrazia". Esklaboen demokrazia! Zutabegile grafiko zorrotz batek honela laburbildu du kontua: "Utzi galdeketa! Demokrazia arriskua da demokraziarentzat!"

Cannesen G-20aren goi-bilkura egin zen. Bertako agenda bahu egin zuten baina; oraingoan Greziako egoera dela-eta. Beste gai larri batzuk mahaitik kanpo geratu ziren, hala nola: paradisu fiskalen eta banku opakoen –60.000 milioi dolarretik gorako finantza bitartekaritza lanak egiten dituzten erregulatu gabeko erakundeak– kontrako neurriak, bai eta finantza eragiketei ezarri beharreko Tobin Tasaren aldekoak ere. Goi-bileran horretan agerian geratu da herrialde garatuaren aurrekontuetan zein tarte gutxi dagoen ekonomia biziberritzeko eta enplegua sortzeko; ikusi da garapen bidean dauden herrialdeek ezin dietela beraiek sortu ez duten krisiaren kostuei uko egin, eta finantzak arautzeko orduan zatiketa itzela dagoela Atlantikoaren bi aldeetan. G-20ak berriz ere erakutsi du, herritarren zerbitzura ez ezik, "merkatuen" zerbitzura dagoela.

Juan Mari Arregi



Hitanoa Azpeitiko ikastetxeetan



ERABIL.COM-ETIK HARTUA

Hitanoaren proiektuaren aurkezpena Azpeitian.

AZPEITIKO EUSKARA PATRONATUAK, Mintzola Fundazioak eta herriko ikastetxeek bat egin dute hitanoaren egitasmoan. Azpeitian, beste herri askorekin alderatuz, hitanoa asko erabiltzen da. Alabaina, gero eta gutxiago erabiltzen da eta kalitatea ere hala-moduzkoa da. Hitanoa landu eta bultzatzeko asmoz gazteei begira jarri dira eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleekin landuko dute 2011-2012 ikasturtean. Mintzola Fundazioak, Gipuzkoako beste herri oso euskaldunetan, Zumaian, abian du antzeko egitasmoa.

Abertzaleen helmugak

HAUTESKUNDE kanpaina honen berezitasun nagusia da ortzemugan ez dela ETArekin jardunik eta PSE eta PPko hautagaiek haren mehatxurik gabeko kanpaina egin ahal izango dutela. Eta hori bakarrik itzela da dagoeneko. Hortik aurrera, gatazkaren ondorio guztiak dantzan dihardute hautagaien mitin arteko joan-etorri zoroetan. Arnaldo Otegi espetxetik egin behar izatea kanpaina da horren adibide esanguratsuenetakoa. Oraindik ez da berdintasunik guztientzat.

Inkestei kasu egitekotan herritarra galduta legoke, muturrekoak baitira haien emaitzak. Seguruena azaroaren 20a hurbildu ahala haien emaitzak gerturatu daitezke gehiago, baina orain artekoak muturrekoak dira. Bi adibide: Espainiako CISEk egindakoan PSE nagusia da EAEn eta PP bigarren indarra; EAJ eta Amaiurrek hiruna diputatu lortuko lituzkete. Gizakerrek *Deia*-rentzat egindakoan (EAE oinarri) EAJ da nagusi eta Amaiur oso gertu du, biek bosna diputatu seguru lituzkete eta seigarrena lehian bien artean Gipuzkoan. PP eta PSE lirake hurrengoak, baina EAJtik 7 eta 10 puntura hurrenez hurren.

Inkestak albo batera utzita, EAJ-ren eraso dialektikoak ikusita, argi dago Amaiur dela bere aurkari nagusia. Izan ere erronka ez da txantxetako, historian lehenbizikoz galdu dezake bere hegemonia esparru abertzalean. Hori izango da datu garrantzitsuetakoa hilaren 20ko gauean. Madrilgo haizea lagun, PPK ondo etsuko dio eta gaur gaurkoz PSEren emaitza da galdera ikur nagusia. 2008ko Zapaterok ez du zerikusirik 2010eko Rubalcabarekin, nahiz eta, Espai-



nian ez bezala, Euskal Herrian PSEk atera diezaiokeen errentagarritasunik bakearen ideari. Baina krisia da oraingoa aldagai nagusia, eta Espainian halako zartakoa hartuko badute, badiardi logikoa dela pentsatzea zigor horrek hemen ere izango duela islarik. Nafarroan garbiago bide daude kontuok eta badiardi diputatuen banaketa 3 (UPN-PP), 1 (PSN), 1 (Amaiur) izango dela. Geroa Bai-ren boto kopuruari ere arretaz begiratu zaio, zalan-tzarik gabe. Edozein eratan, hauteskunde guztietan dira ezustekoak eta alde horretatik hauek ez dira salbuespen izango.

INTERESGARRIENA, ordea, hauteskunde kanpainaren ondoren etorriko da. ETArekin ez du leku oso berezirik hartu Espainiako kanpainan, PPK uko egin dio gaiari eta PSOEk aho txikiarekin aldarrikatu du Rubalcabarean –ez Zapateroren– lorpena. Hauteskunde ondorengorako da presoena eta ondorioena, Mariano Rajoyk denbora behar du, bai egindako bidea desegiteko (iritzi publikoa, polizia, epaileak...) eta bai bere alderdian babesten den eskuin muturrari aurre egiteko. Bai, Rajoyk ez duela ETArekin negoziatuko jarri du hauteskunde progra-

man, eta horrek esamesa ugari sortu du hemen, baina ez du ETArekin ezer negoziatu beharrik, nahikoa du legea berak nahi duen bidean betetzea eta kito; hobe litzateke ETArekin arituko balitz, baina Aieteko Adierazpena betetzeko ez du erakunde armatuarekin zuzenean hitz egin beharrik. Eta beharko balu ere, horretarako daude bitartekariak.

Hauteskundearen ondoren garbiago hasiko dira ikus-

ten normalizazio politikoaren zantzuak. Amaiur Madrilan, preso gaixo larriak Euskal Herrian edo baldintzapeko askatasunean, *Parot doktrina* deseginda, Sorturen legeztatzea, alderdien arteko elkarriketa sakonagoak, biktimen gaia lasaia jorratzea, krisiari aurre egin beharra...

Bitartean abertzaleen erronka berriak joango dira finkatzen. “Independentzia!” dio bloke soberanistak eta indar metaketari ekin dio. Eta EAJ? Urriko *Larrun*-ek ematen ditu horretarako pista batzuk: Euskadi Europako nazio gisa ikusten da eta “diskurtso horrek etorkizuneko ezker abertzalearen diskurtso ideologikoarekin uztartzeko moduak eskaintzen dituela”, dio jeltzaleen barrenak ondo ezagutzen dituen Juanjo Alvarerek.

EHUko katedratiko honen ustez, oraindik asko egin liteke Gernikako Estatutuaren garapenaren bidetik, eta ondorengo hitzek iradokitzen dute zerbait jeltzaleen balizko estrategia hortaz: “Estatuarekiko harremanetan bilateraltasun osoa lortu gabe ere, aurrerapausoa litzateke. Adibidez: Kontzertu Ekonomikoaren ahalmena esparru politikora aldatuko bagenu, potentzialtasun ikargarriak geneuzkake”.



PELLO ZUBIRIA

Antropologo batek ikasia Parisko polizien artean

Ez bakarrik polizia eta jendarmeak, Frantzia segurtasunik eza salatzen duten jendeak oro dabilta asaldatuta: Didier Fassin soziologoak *La force de l'ordre* ikerketa liburuarekin erakutsi du gaizkileak harrapatzen berezitatuko poliziak okerreko taktikekin tematzen direla, azkenean beraiek direlarik auzoetako istilu askoren eragile.

LA FORCE DE L'ORDRE LIBURUAZ *L'Express* astekariko F. Prevelek idatzi du: "Kontuz, liburu honek lehergai nuklearra darama. 2005etik 2007ra Didier Fassin soziologoak lan egin du poliziako BAC *Brigade Anti-Criminelle* ekipo bati jarraituz, Parisko aldirietako auzune batean. Gure usteak ustel uzten dituzten ondorioak atera ditu. Ez, bada, auzune horietako segurtasun falta ez omen da hain larria. Ez, indar erakusketek ez ei dute hobetzen ordena publikoa".

Telebista publiko frantsesean urriaren 25eko gauean *Ce soir (ou jamais)* saio arrakastatsua ikusi zutenak izan ziren lekuko: Fassinen iritziak errespetu handiz hartuak dira.

Frédéric Taddeik aurkeztu zuen antropologo eta soziologoa, Princeton-en irakasle dena, *La Force de l'ordre, une anthropologie de la police des quartiers* liburuaren egilea. "Fassinek jakin nahi zuen nortzuk ziren BACeko poliziok. Bere ustez, bihurtu dira 'politika segurtasunzalearen beso armatua', agintearen komunikazio beharrak 'fakturazio helburuak betez' asetzen dituztenak. Poliziak salatzea baino gehiago liburuarekin erakutsi du zein egoera sozial eta politikok sortu duten 'salbuespen egoera txiki hau', erakutsiz *injustice ordinaire* deitzen zaion hori nora erabiltzen den auzoetan".

Antropologo eta soziologo gain mediku ere baden Fassinek bi doze-na liburu argitaratuak ditu, horietako asko antropologia eta osasunari buruzkoak, baina baita osasun sistema eta politika lotzen dituztenak ere. Telebistako emankizunean aurrez aurre Alain Bauer kriminologoa eduki zuen, Frantziako ospetsuena-takoa, Sarkozyrekin eta aurretik Chevenementekin Barne ministroaren aholkulari izana segurtasun afere-tan. Bauerrek berak xehetasun batean besterik ez zion azaldu eza-dostasuna Fassini. Behar bada Fassin hizketan gizon gozo eta moderatua delako, baina funtsean, Bauerrek aitortu zuenez, *La force de l'ordre* oso ikerlan on baten emaitza delako.

Ce soir (ou jamais) programaren webgunean ikusgai dago egun hartakoa. Aldiz, paperean, *Le Nouvel Observateur* astekarian Elsa Vigoureux-ek egin elkarrizketa plazaratu zuten irail erdialdean, lerroburu adierazko-rrokin: *Des policiers dans la "jungle urbaine"*, euskaraz librea "Poliziak kaleetako oihanean" eman lezakee-na. Dena mami.

Azken hamarkada hauetan, esplika-tu du Didier Fassinek, auzogunee-tako polizia joan da antolatzen Fran-tzian, eta honen barruan BAC famatua. Mundu osoan bezala hemen ere poliziak jo du jende ahu-lenetan zentratzera —zehazkiago Ipa-

Irudia www.copwatchnord-idf.org gunetik hartuta dago: Parisko periferiako auzune batean kaleko arroparekin jantzitako lau polizia nortasun kontrola eta miaketa egi-ten ari zaizkie magrebiar itxurako gazteei. Gure unibertsitateetako inori utziko ez litzaiokeena —agian gure unibertsitateetako inor proposatzera ere ausartuko ez litzate-keena— lortu du Didier Fassin antropologo-ak: 15 hilabete pasa ditu karriketako krime-nak pertsegitzen dituen polizia talde batekin, haien eguneroko lana ezagutu eta aztertzen. Azken urteetako polizia eredu-en disezioa egin du *La force de l'ordre*ren 400 orrialdetan. Ikasgai askotarako ematen ari da. Estatuari eskaini dizkionen artean, honakoa ekonomikoa: poliziak horrela era-biliz diru publikoak xahutzen dira, Estatuak sosak erabili behar litzuke benetan existi-tzen den kriminalitate txikia konpontzeko bestelako estrategia eta antolakizunetan.

rraldekoek esango dute *ziblatzera* eta Hegoaldekoek *zibatzerara*—, lan egiteko metodo bereziak garatuko dituzte, paramilitar gisakoak, legalitateetik kanpo daudenak, sortuz salbuespen egoera txikiak han eta hemen. "Fran-tzian polizia nazionala ez dago herri-tarren zerbitzuan baizik eta Estatu-a-renean, nahiz eta honek neutraltasunaren bermatzaile behar-ko lukeen".

Fassinek egin ikerketa munduko beste leku batzuetan ohikoa omen da, baina Frantzia orain arte ez. Hemen, Espainian? Antropologo bat gure arteko Guardia Zibil, Poli-zia Nazional eta Ertzainen artean patruilatzen —zer esanik ez komisa-rietan muturra sartzen— eta bukae-ran liburu bat argitaratu eta telebis-tan luze-zabal azaltzen... ez dute ikusiko zure begiek.

"Putakumeok ez gaituzte maite"

Auzo gatazkatsuetara bidaltzen dituzten polizia gazteak herri txikie-tan haziak izan dira, ez dute hiri handietako barrioen ezagutzarik. Poliziaren eskolan ere oihan arris-kutsutzat erakutsi dizkiete parajeok, jende basatiz beteak, ezin omen da haietan bereizi zein den jatorra eta zein delinkuentea.

Ondoren, graduak eta armak harturik, heldu dira *infernura* "lapu-rrak eta gaiztaginak harrapatzera"...



baina lapurrak falta! Bazabiltza patruilan kriminal bandak harrapatu parafernalia osoarekin eta gau osoan ia inork ez du telefonatzen, ez da deus gertatzen.

Fassinek azaltzen duenez, estatistikek garbi diote kriminalitatea jaitsi egin dela; gaiztakeria txikiak dira usuenik gertatzen eta horien egileak gutxitan harrapatzen dira bitxiak edo sakelakoak eskuetan. Alabaina, ordenaren zaintzaileoi presa sartzen zaie *goitik*: Fassinek dioen bezala negozioekin alderatuz, “fakturatu beharra daukate”. Helburuak bete. Atxilotu, alegia.

Arrestatuen zerrenda luzatzeko poliziek jotzen dute eskueran daukatena harrapatzera, hots, paperik gabekoak, *sbiteux* jendea (kalamu

erretzaileak, *porreroak*), eta abar. Paperik gabe dabilozan atzeritarrak arrestatzea erraza da, aski da haien itxurari erreparatzea, metroan, kale bazterretan, errepidean. Drogazaleak zakuratzeko, berriz, badakizu zer egin: periferiako auzuneetara joan, gazte edo susmagarriak gelditu eta haien jantzietan miatu.

Dudarik gabe poliziek nahiago lukete *dealerrak* harrapatzea, *gamelu* edo *mandoak* alegia, baina horiek nar-kotikoetako polizien negozioa dira. Eta paperak eskatu honi eta *kaxxo* gogor samarra egin hari, giroa garraztuz doa kartieletan. “*Putakumeok* ez gaituzte askorik maite” esango dute *zakurrak* deitzen dietenaz.

Atxilotuetako gehienak gero epaileek karrikara bidaliko dituzte

berriz. Poliziak ez daude pozik jujeekin: “Bigunegiak direla uste dute—dio Fassinek—nahiz eta egitateek alderantzizkoa erakutsi. Eta poliziek justizia beren eskuz egiteko joera dute. Gazteen gain nortasun kontrol ilegalak egiten dituzte, hauek umiliaraziz. Edo talde batean atxiloketa arbitrarioak burutuz. Haiek diotenez, ‘bizia izorratzeko’—*pourrir la vie*—helburuarekin. Jendeok, ondorioz, zigor bikoitza nozitu tuko dute, epaileena eta poliziena”.

La force de l'ordre liburuan, antza denez, antropologoak kontatzen ditu bere seme-alabei gertatutakoak ere, nola afrikar jatorriko lagunak jipoitu zituzten BACEko agenteek. Baina gertatzen da normalean populazioaren zati batek baizik ez duela bizi horrelako giroa inguruan, gainerakoek ez dute ikusten. “Errealitate hau ez ezagutzea bidegabekeriak ezkutatzea da”, dio Fassinek.


Azkenean azken hamarkadotan ordenaren zaintzaileek eta politikoek gerraren iruditeria oso bat antolatu dute: etxe barruko etsaiak, zigor erasoak pertsona bakar baten ekintza kastigatzeko, teknologia militarren erabilera liskarretan, eta abar.

Ordainetan, auzune askotako biztanleak biktima sentitzen dira. “Gazte bat hiltzen delarik poliziarren kotxe batek zanpatuta edo komisaria baten barruan, matxinada gogoa piztu daiteke. Horrela sortzen dira istiluak. Alde batetik batzuen gerrako iruditeria. Bestetik besteen matxinatzeko gogoa”. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Mendiguren Elizegi

Segregazioa gure alde?



rain dela hilabete batzuk izan zen. Iruñetik deitu zidaten, eskola batean hitzaldia emateko. Auzo berri bat zen, eraikuntzaren bonbonkeriaren urteetan lehengo landa-lurretan altxatu diren hirixka artifizial horietakoa. Joan nintzen, izan nuen solasaldi bat hango neska-mutilekin, eta gero Iruñera bertara itzuli nintzen, lagun batekin elkartzeko. Taberna batean bazkaltzen ari ginela, goizean umeekin zer moduz galdetu zidan lagunak; azaldu nion nola joan zen saioa, eta denbora horretan guztian buruan jirabiraka zebilkidan zalantza azaldu nion: haurren artean ez zegoen ez Marokoko Fatimarik, ez Kolonbiako Jonathan Elvisik, ez Errumaniako Ileanarik, ez Senegalgo Mamadourik, ez Txinako Sun-Lirik: denak ziren “euskaldun garbiak”, itxuran nahiz izenetan, gure hiriburu batean gaur egun normalean ez den moduan.



DANI BLANCO

ikastea, ez hainbeste D eredu hobia iruditzen zaielako, ezpada, badakitelako han beren haurrak ez direla beltz-sudakamoro-ijito jendilaje horrekin nahastuko (abertzale jendearekin akaso bai, baina hori ez da horren larria). PSEkoak Jauralaritzara iritsi zirenean, PPren eskutik, haien guztien proiektu nagusietakoa eta goraki aldarrikatutakoa zen A ereduari nolabaiteko prestigioa itzultzea, “presio abertzalea!” kenduz gurasoak konbentzitzea beren umeak, “askatasunez”, erdal eredu sartu zitzen; matrikulazio-aldia iritsi zen, eta gobernuaren asmoen porrota erabatekoa izan zen, lehenengo urte hartan; geroztik, nahiago dute gaia aipatu ere ez egin. Zenbat denbora da Isabel Zelaa desagerturik bezala dagoela?

Behingoz (Erdi Arotik hona lehenengo aldiz, nik dakidala), aitortu beharko dugu gizartearen inertzia kontserbadoreak eta aurreiritzi arrazistek euskararen alde egin dutela. Ez naiz kexatuko, baina ez da gus-tuko egoera ere. Beraz, zer egin behar genuke? Bada, ahal bezain laster egoera irauli. Iritsiko da, espero dezagun, agintea beste batzuek hartuko duten garaia, eta orduan egingo ahal dute aspaldian egin beharrekoa: A eredu ilegal dela gogoratu (ez du betetzen ikasleak elebidun bihurtzeko eginkizuna) eta murgiltze-sistema aplikatu. Bitartean, baina, ezin geldirik egon: bai eskolek, bai euskararen aldeko elkarteek, bai kanpotarren integrazioan lan egiten duten etorkinen familiek hitz egin behar lukete eta haien komunitatekin pedagogia egin, azaltzeko ze aukera dituzten, eta zenbat mesedegarriagoa izango litzatekeen beren seme-alabentzat auzoko gainerako neska-mutilekin batera ikasiko balute (nahiz eta momentuan babestuago sentitu ghettoaren gozoan).

Hala egin behar genuke, ez bakarrik euskararen alde baizik eta kohesio sozialaren alde. Eta, batez ere, gure herrikide diren beltz-sudakamoro-ijitokume horien guztien etorkizunaren alde. Ados zaude, ala zuk ere ez duzu nahi zure seme-alabek jendilaje horrekin batera ikasterik? ■



Behingoz (Erdi Arotik hona lehenengo aldiz, nik dakidala), aitortu beharko dugu gizartearen inertzia kontserbadoreak eta aurreiritzi arrazistek euskararen alde egin dutela. Ez naiz kexatuko, baina ez da gustuko egoera ere. Beraz, zer egin behar genuke?


—Auzo horretan ez dago etorkinik ala? —galdetu nion harrituta lagunari.

—Bai, badago, baina erdarazko eredu apuntatzen dira denak.

Pentsatzen jarrita, kontua ez da Nafarroaren berezitasuna (UPNkoak hain dira gaiztoak eta motzak eta bla-bla-bla); Euskal Komunitate Autonomoko hiriburu guztietan ere antzeko zerbait ari da gertatzen: A ereduaren hondarrak ez dira jada espainolismoaren gotorlekuak, baizik eta immigrazio pobreaken ghettoak. Erdaldun elebakar espainolistek, izan ere, nahiago dute beren seme-alabek euskaraz

ASTE HONETAKO

zozketa



Atxurra Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Arronategi auzoa, 7/g
Bermeo, BIZKAIA

www.hotelatxurra.com

1



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museoteiza.org

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Artez euskara zerbitzua

2011-2012
5 haurtzaindegi agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

5

AZKEN IRABAZLEAK (2296. Argia)

URBANO jatetxea

- Zinkunegi Optikoa (Donostia)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Eva Ruiz De Galarreta Crespo (Noain, Elortzibar)
- Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)
- Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)
- Oskar Angulo Saralegi (Usurbil)

IRUÑEAKO PLANETARIOA

- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)
- Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)
- Miren Begoña Goikoetxea Azkue (Getaria)

HAURTZAINDEGI AGENDA Artez Euskara Zerbitzua

- Redondo Jaun Andreask (Hernani)
- Jose Luis Iturrizar Sagarduy (Arrankudiaga)
- Irati Lujua Etxenike (Etxalar)
- Xabier Ugarte Billar (A Lama)

OKATXU kamiseta

- Begoña Azpeitia Begiristain (Alegia)
- Adur Euskaltegia (Gasteiz)
- Maite Mendizabal Iruretagoiena (Zumaia)
- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)
- Jon Mikel Barandiaran Arratibel (Errenteria)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





► Erreportajea: Jatearen arriskuak

Janari faltarik ez dugunoi, jaten duguna bihurtu zaigu problema. Otordu bakoitzean substantzia kimiko kutsagarriak sartzen ditugu gorputzean; mokadu batek ez digu kalte egingo, baina substantzia horietako asko luzaroan geratuko direnez gure organo, ehun eta zelulei itsatsita, zenbatgarren mokaduaren ondoren ordainduko du faktura gure osasunak?



► Elkarrizketa: Berri Txarrak

“Haria” da Lekunberriko taldearen disko berriaren izenburua, zazpigarrena hirukoaren ibilbide luzean. Honen haritik elkarrizketatu ditugu beren lokalean.



► Blog irakurketa: Iraultza baten irudiak

www.argia.com/erredakzio-mahaia/lander-arbelaitz

Al Jazeera Arabiar udaberria gisa ezagutu den fenomenoaz aztertu du, baina beste ikuspuntu batetik. Nork eta nola grabatu zituen mundu osoan ikusi ditugun irudi ausartok?



Lehiaketa

Osatu marrazkia originaltasunez eta bidali erantzuna beranduegi@argia.com helbidera.

Saria: Bilboko Kafe Antzokian 2 laguntzako bazkaria



www.argia.com

www.beranduegi.tv